XI URTEA - I ZENBAKIA 1930 ILBELTZA-EPAILA

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ARKIBIDEA

«USAURI», SCHUCHARDT IZENEKO SARIA, 1929'AN IRABAZI ZUEN IRAKURGAIA ANABITARTE ' TAR AUGUSTIN

ESKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

ERIZKIZUNDI-IRUKOITZARI EŔIETAN ERANTZUN DIOTENAK
Ormaetxea N.

NOMBRES VASCOS DE LOS ESPACIOS INTERMEDIOS ENTRE CASAS
Bonifacio de Echegaray

BILBO'N
Euskaltzaindia'ren etxean
Ribera, 5

DONOSTIA'N
San Iñazio'ren Gutundegian
Garibay, 28

EUSKO-ARGITALDARIA
Banco de España, 3
BILBAO - 1930

XI URTEA 1930

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK

TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

BILBO'N
Euskaltzaindia'ren etxean
Ribera, 5

DONOSTIA'N
San Iñazio'ren Gutundegian
Garibay, 28

EUSKO-ARGITALDARIA
Banco de España, 3
BILBAO - 1930

I

IGANDE-EGUN BATEAN

Egun artan Usauri-n igandea zan, ta beste tokietan ere bai. Edanontzi batean itxekita dauden bunbuĺoak uraren bidez azalera igo ta azkatzen diran bezela, alatsu, meza nagusiaren garaian, etxe-zulo bakoitzetik, edo beltzez jantzitako andrea pildumen oria eskuan, ala mototxa mantiĺaren azpitik agiri duan neska tuntuxa —eŕosarioa beatzetatik zintzilik— etxaide ta bidexkaetatik, batean bat, bestean beste, guztiek batera jotzen zuten; ta bein eliz-ateetan, len aipatutako bunbuĺoak bezela, ezkutatu egiten ziran. Oraindik ere nere begiek ba'dakuszkite egun guztian mar-mar ari dan enparantzako iturĺaren ondotik, oñak aŕitik aŕira —eŕekatxoari akika— azkenik eliz-auŕeko bidea artu ta iĺunpean sartzen dirala. Gurutz-aŕia dagoan tokitik, beŕiz, bidea bee-aldera dijoa elizarako, jostundegia ta «Axentxi-n maatsa»-ren ondotik igarota.

Gauean bere orduariaren joalearekin kanpotaŕak etoŕi beŕian goitiĺuntzen dituan elizak, orain, eguzkiak gain xamaŕetik artzen duala, ba'dirudi egoak zabaldu ta oĺoaren gisan Usauri ta inguruko jendea ostendu nai duala.

Bukatu dira pelota-plazako lei izarditsuak. Leŕa-azpiko txokotik txamaŕak jasota uŕena ukaiarekin legortu dituzte kopetak. Galtzaleak auŕenak abiatu dira; gero irabazleak, lasaiki. Pelotaka polita izan da. Gazteak gizonki aritu. Aŕietatik at ba'zegoan zenbait ikusle.

Ardotegietan guztiontzat tokirik ez eta aŕarian bil-

dutako baseŕitar mordoskak oraintxen sartu-ateratzeko asmotan dabiltz. Ederki alkartu dira meza-auŕeko solasaldian: iganderoko ezagun eta adiskideak ikusi ta bideko nekeak nolabait samurtu.

Usauri-n, aŕotza baziña, onetxek joko zinduzke lenengoz: astegunetan, goizeko neska-mutiĺen dei ta ojuak, gurdien kaŕankak, zakuŕen zaunkak, astoen aŕantzak eta, euria egin ba-zuan, eskalaproin-dantzak; igandetan, inguruetako mendietatik etoŕitako baseŕitar txamar beltzadunak, ibiĺera oargaŕia ta izketa asko.

Mezetan, guztiak giñan. Gure atzetik emakumeen arpegi goŕituak baizik ez genuan ikusten, pildumenak luŕean, gañerakoa iĺunpe beltzak aŕapatzen zuan. Auŕe-aulkiak, beteak; batez ere adiñeko gizonak, zenbait mutil koskor ere bai. Aldare nagusian abade jauna bakaŕik. Apaiz gutxitxo, esan zitekean, ozte arentzat. Alkatea ere an zan, aren lagunek buru zutela.

Gu, bestetaŕak, guztia oartu naiean jaŕi giñan; noski, jainko-etxeari zor zaion lotsarekin. Opiĺak biltzen saskia eramaten duteneko artan aŕitu giñan, gure uri aundietan ez da oŕelakorik ikusten. Inguruko aldare ezagun-ezak zer ikusi ba'zuten. Bere garaian apaiz jaunak auŕeko aldare aundia utzi ta sermoi-tokira igo zan berea egiteaŕen. ¡A zer itz ezti ta biotzekoak! Astiro-astiro, baŕengo poza zeriola, asi zan. Aste artako egun batean obispo jauna izan zan Usauri-ko neska-mutiĺeri bataio-ṣendotza ematen. Ta mutiĺak ezik, ta emakumeak ezik, gizon asko izan zan jaunartzen elizan. Berez biotzbera apaiza, negar eragiteko alaitasuna zerabilkian ezpañetan. Obispo jaunak, noski, uŕengo bi eŕietan aipatu egin omen zuan Usauri-ko jendetza. «—Yaŕai ezazute, ene kristau maiteak —zion gogokiro— yaŕai bide onetik atzera begiratu gabe». Ta elizako iĺunpean argi-argi ikusten genuan

gure buru baŕengo begiekin Usauri-ko artalde zuria ta artzai beltza atzetik. Zigoŕa eskutik utzi gabe, bukaeran dantza lotuaren auŕezka jardun zuan. ¡Zer gaŕatza, ẓer samiña zitzaion zenbait gazteen «keri» ura! Nekez iltzen dan belar txaŕa, onak kutsutzen dituan sagar ustela...

Ta meza bukatu zan. Beŕiro eguzkia ta zeru-żola urdiña agertu ziran begiak itxutzen zizkigutela. Len toki askotatik banaka etoŕitako jendea, orain piīaka, alkaŕekin estututa, lekorera biurtzen zan, babaŕunak uŕatutako zoŕo lodiaren zulotik atera oi diran antzera. Beraz, zabaldu egin zan jendea. Onela ustu zan Usauri-ko elizaren sabela; txitoak joan zitzaizkion egapetik oīoari.

Utzi ditzagun emakumeak beren zeregiñetara joaten. Baseŕitaŕak astean eŕira beñere jetxitzen ez dirala-ta, beren artu-emanak igandeko meza nagusiaren ondorenerako uzten dituzte: bata, eŕitar bateri gauaz mendian emandako argimutīa jasotzera; bestea, erloju-giñari zintzil-orduari zaŕ-zaŕa eskatzera. Bitartean udala (ayuntamentua) bildurik dago enparantzako etxerik edeŕenean, bigaŕen bizitzan; beerago jatetxe ta lo-etxea ta beerago ardotegia. Aŕatsero etoŕi oi dan «Pidel-en taŕantak» emen egiten du geldialdia, baldin lendik zamaren-zamaz aldapak igo eziñik, bide-erdian geratzen ez ba-da, askotan gertatu oi dan bezela.

Burnizko tutuak, zementozko zakuak, mugazaien kutxa-zaŕak (Usauri-n ere ba'ziran mugazaiak) ta kristauak, guztiak alkaŕekin etoŕi bezela batean iraulita luŕeratzen ziran zenbait gauza geiagorekin. Ustu ta bereala iruzpalau mutil sartuko zaizkio Pidel-eri taŕantan ta elizako zokoraño bira egin bitartean an joango zaizkio geldik ezin egonik.

Bat... bi... iru adar-dei entzun dira. An dago pelota-plazako aŕi koxka batean zutik irakurlea. Udalaren erabakiak irakurtzera dijoa. Oztea bildu zaio. Izketak utzi dituzte ta oraintxe guztiak ixildu dira, «Tukulu»-eneko ardotegitik aŕetarik egiten ez dion azolagabe baten itzak entzuten dira :

—¿Sagardoa?' Emendik bat... bi ilabetera, eguzkia berotzen asten dan garaian.

Batzuen-batzuek par egin dute. Asi da. Entzuleak buru-belaŕi dagozkio. Irakurleak bere lana bete ondoren arpegiak biurtu dira ta gizonak ere bai. Auxe da irteerako garaia. Azkenekoak ba ' dijoaz. «Tukulu»--enean ia eŕitaŕak besterik ez. Ta erabakiak ojuztatu bitartean sagardoaz mintzatu dana, etxerako bidean, bakar-bakaŕik igaro da gotzai (obispo) jauna eŕian sartu zaneko erein-ostoz eta banderaz jositako uztaiaren azpitik...

II

«VILLAGARSIA» MUNDUKO PORTURIK AUNDIENA

Ba'goaz «Tukulu»-enera. An zegoan Usauri-ko zilargiña, erloju-giña, alper-erdoiak jota nagitutako gizona. Arotza berez; baño erian urteak zeramazkiala euskeraz ondotxo zekiana. Me-mea etori zan; orain, ordea, arpegia edanaz buiatuta—ta gorputza gure ustez ere bai—lodi xamar arkitzen zan. Garerdiko gizona (adin erdikoa); iztuna, jostagura, orain ere gelaren erdian zebilen batekin eta bestearekin ¡ji-jil-ka oi zuan iri-antzi erexarekin. Gutxik zekiten aren izena ta abizena gutxiago oraindik. Auskaldeko baserian ere ezagutzen zuten. Non-naitik zijoala «¡adiós, erlojero!» egiten zioten. Onek egiten omen zuan: ardoa berea ta besteena edan; artzekoak eskuratu, ordaintzekoak ukatu, erosarioa saldu ta kartak erosi. Gañerakoan, ikusi ez duzuten bezelako beso-bizkarzale ta par-ontzia. Goizetik baxoka bat patar ogia bustita. Esneak estereangoa egiten omen zion, txokolateak beriz ez dakit zer geiago. Ura (lengoa) bezelako «eremediorik» ez.

Oren adiskide-kidea, Antonio, Letxa-n sakristaua izana, iruzpalau seme-alaben aita. Beti-beti galtz--mutur̃ak lotuta zeuzkana. Luze aña zabal; baño gaztea oraindik. Arpegi-aundi; baño ez itxusia. Sudur--puntan alako kankar bat zeukan. Ibiltzen zanean, galtza-putz aiekin, kristaua baño atea obeto zirudian. Oraindik ere sakristauaren itxura zeukan, begiak apal,

belaun-koskor bigunak. Ardoak ez zion txartu bere iduri ona. ¡Izan ere Usauri-n izaten zan eta izan oi dan ardo merke ta bikaña! Baño aren izakerako grin txarena edozein zala gutxietsi ta babotzat artzea. Ta ez zion begiratzen berak aintzakotzat artzen ez zuana an aldean edo aurean ba-zegoan ere. ¡Amaika bider galazi zizkioten ondo irabazitako mutureko ak! Orain ere an ari zan, «Tukulu»-enean, aboa ainbateko zabaleran asare-itxurazko itzak zerizkiola: —«¡Babo araioa!, or ikusi diagu Manuel bizikletan arpegia gorituta «Pidel-en tarantа»-ren atzetik. Nonbait Pidel-en tarantak tutu luze batzuk izaki atzetik eta Manuel ondotik zijoala, alako bira batean, tarantaren atzeak alde batera egin duanean, tutuek jo ditek eta exerita zetorena buruz-beera bota. Or etori duk bide guztian segika, abo-betez «osijenoa» artzen (gasolinaren kea) Pidel-eri kargo artzeko asmotan, noski. ¡Babo araioa!, bizikletan ez zekitek eta non-nai sartu beara. Nik bezela egunean berogeita-amar, irurogei kilometro egingo ba-lizkikek, ala ere...

—Asi aiz gogorak botatzen—egin zion Juantxo-k, beti alprejeta txuriakin ibiltzen zan gazte poxpoliña.

—...ezindakoak ez dizkiat... ¿Zer? —Juantxo-ri begira—. Esaiok Paulino-ri; or zegok leioa beteko buruarekin. Lengoan Letxa-tik barena ninjoala ikusi ninduan ta baita nik, oraintxen gogoratzen naizela, aspaldiko Austin ikusi. Egia esatera aritu nintzaion. Ura ila zala etsita ikaratu nintzan topatzeaz: oi, ¿au bizi al duk?, egin nion nere buruari. ¡Ta gauzak zer diran! Ori gaur bezelaxe esan ta urengo egunean ziflatu zan—bukatu zuan Antonio-k.

—To, urena topatzen ba-duk, seguru ila dala —esanda jii..., jii..., jii..., jii..., asi zan zilargiña. Mai-mutuari eldu, ta sabelari ere bai, ta goitika egin oi

dan bezela —ez bein-beingoa— arpegia goŕitzeraño erazo zion.

Beti ume ibiltzen zan gizona. «I, Aŕanopoleta, aŕano-aŕanoa..., ta ¡dzast! lepazamaŕean jo. Besteak eskuarekin egiten ba-zion, utsarekin «¡oi!» edo ji-jika beŕiz ere. —«Bete amargaŕena, kosta-ala-kosta... merkeena. —Ara bestea, *xor diaxu ta paga egidaxu* arpegi oŕekin.» Ate-ondotik zijoakeanari kaŕaxika: —«*Infrentero, dame un mano de papel por el kristaltzulo.*» Uŕena kantari:

«Maria Andresen kokotza
lau libra ta bost ontza».

Alako batean: —¡Bigar lanera!

Txoroa buruan ta ibili munduan. Antonio, oŕegatik, ez zuten beñere paŕez ikusi. Gauza gogoŕenak esateko arpegi-zimuŕik erakusten ez. Batzuetan amoŕazi egiten zuan egosgogoŕak; bestetan eŕuki gintzaion gixajoari. Lolo xamaŕa ere ba'zan. Juantxo maxiatzaleak Donostia-n auŕeko igandean jende asko ikusi ote zuan galdetu zionean «Ni bakaŕik ezaguna», erantzun zion.

Ta onelaxe izan oi ziran Usauri-ko igande-goizak. Larunbateko lan neketsuak utzi ta gaueko loaren ondoren egun osoa atseden.

Gizartea gogoz artzen duten aya zaie, otza kentzen duan artilea, naigabeak aienatzen dituan txori-maloa. Gizonek elkargana jo oi dute. Gogoetak iñori ixuritzea naiezkoa zaio gizonari, iñoren usteak jakitea atsegin, jolasa ta iŕia osasungaŕi. Benetako griña izaten dute askok gizarterako. Ta astean beingo bilera nekez datoŕen basa-atea.

Eŕi oiek paketsuak izaten dira. Aien jardunek ajolik ez dizutela uste dute. An gain-gañeko gauzarik erabiltzen ez. —«Zu asper-asper eginda ba'zabiltz— esango dizute—: gu alaxe bizi gera».

—«Antonio ta i, bi» —esan oi zion «Tukulu»-k zilargiñari. Bai alkar artuta, bai alkaŕen ajolik ez, edo-ta, alkaŕekin nazkatuta, nai ez ba-zuten ere, ustez ta ez uste, biek beti topo egiten zuten. Ez alako tokira joera zutelako, ez aien zeregiñek bata besteratzen zituztelako; tokirik aldenduenetan, egunik txaŕenetan, garairik ilunenetan, toxa ta pipa bezin eskier alkarganatzen ziran; ez, ordea, toxak pipari eman.

Ta onuntzean biok bat zetozenean, ez lizuteke esango norako abiatu ziran, nor utzi zuten eta non. Naiz askotan asaŕetu —biak ajolakabeak— alkaŕekin egon-beaŕak adiskidetzen zituan. Ardoaren usaia, batez ere, biotz-legungaŕi bikaña zitzaien. Gazta puska berean xaguek topo. Sanson bururatuta asto matrail-ezuŕa begitaratzen zaigun bezela, Antonio ikusita bestea gogora, zilargiña auŕean lengoa usma.

Gurdi baten kurpilak. Batzuetan kurpilak kiŕinka ta gurdi-gañekoak paŕa jario; bestetan ardatza iŕistagaŕi ta gurdi-gañekoak eta kurpilak goitik beerako izugaŕi. Alaxen bukatzen ziran batzuetan iñoren lepotik paŕegin-beaŕak, azkenean guztiak korapilo bat egiñik.

Baño igande goiz onetan —meza entzunbeŕiak giñala aztuta geunden— txorakeriak alde batera utzita, aspertuta-edo, bene-bene ari ziran jardunean. Olde oneko (umore oneko) gizoneri ere askotan gaingañeko gauzetaz mintzatzea oso gogokoa izaten zaie.

Antonio bere «Burdeus»-ko egonaldiaren beŕiak ematen ari zan. ¡Ango katedrala! ¡Kai artako ontziak! ¡Langile pila ura! ¡Garona ibai zabala! ¡Bere gañeko zubi galanta! ¡Portua, batez ere, itxasatea! Ta aundikeri oriek esan bitartean, tarteka, gaizki ikasitako prantzes-itzak sartzen zituan ez-uste itxuran.

Askotan ixildu egiten zitzaioten zer erantzun ez jakiñik eta Antonio-k zer geiago esan izan-ez eta buru

baŕengo muñak arakatuta, lengo esaneri beŕiro eltzen zien, ea zerbait geiago bota al zezakean.

Baño «Burdeus»-ko portuaz jardun zanean norbaitek Vigo-ko itxasatea aundiagoa zala esan zion, Vigo-ko portua España-ko aundiena zala.

Antonio itz-bidean zegoala-ta, berdin esango zien ez zala berak ikusi bezelako gauzarik; baño ango beŕiak baizik ez zekiala ez erakusteaŕen bene-bene auŕeratu zitzaion: —«España-n ez zegok «Villagarsia» bezelako porturik». Ta beŕiro eutsita:» —«¡Villagarsia» duk España-ko porturik aundiena!»

—Nik beti Vigo-Vigo aditzea izan dut España-ko porturik aundiena dala —erantzun zion zilargiñak.

Ta guztieri begira besoak zabalik, ostera ere «beti esan oi dute Vigo dala zabalena».

Antonio-ri baŕena laŕi zebilkion. Vigo zala azaldu bear ba-zuan, ¿nor sinistuko zizkion «Burdeus»-koaz esandakoak? Nola asi ez zekiala onela asi:

—Eŕuki zaituztet geiago ez jakitea; batez ere i, Juantxo, eskolan ikasiago aizelarik. Ara, txinist egidazute, «Villagarsia» baño portu aundiagorik ez dago España guztian. ¿Baño ez al duzute beñere entzun «Villagarsia» portuaren aunditasunaz? Aŕituta naukazute. ¿Oi? «¡Villagarsia» *Europa*-ko porturik aundiena da, puñeta!»

Orduan Juantxo-k esan zion:

—Ez diat txinisten. Hamburgo-koa baño geiago ez duk izango. Hamburgo-koa gero izugaŕia omen duk. Ango ontzietako «paloak» baso zabal baten ugaritasuna ome dute.

Baño Antonio ezin egon:

—«¡¡Villagarsia» *munduko* porturik aundiena da, zer aŕaio!! —bukatu zuan.

—¡¡¡!

III

«SESIOTEGI»-N

Usauri-tik «Sesiotegi»-ra joateko bidea berdiña da auŕenekoz eta gero goitik-beerakoa, mendi-egal malkaŕatik joan beaŕean ziŕimaŕak egiten ditu ezker--eskubira. Beerakoa iru kilometroko bidea-edo da tunel-ondotik asita. Baldin irakurleak guk aipatutako eŕia polita irudituta ikusi gogo balu, ez beza iñora begira tunel ori ezagutzeko asmoz. An ez da mendizulorik. Izana bai, baña sapaiatik aŕi koskor galantak noizpeinka jausten zirala, gain guztia kendu zioten ta ura iñoiz luŕ-azpiko bidea izan ez balitz bezela gelditu zan. Ala ere, usauritaŕen izketan askotan aipatuko dizute zulorik ez daukan tunela, oraindik ere.

Gaztañondo batzuk ezik, edo uraska bat bide bazteŕean, ez duzu jakingaŕirik bea aŕapatu arteraño. Bidea ez da zabalenetakoa. Bi taŕanta alkaŕen ondoan joateko aukerarik ez duzu, baño eragozpideak aienatzeaŕen Usauri-ko arauek agintzen dute goralariak beeralariari toki utzi bear diola.

Auzko mutuŕera joan gabe txaburbide batetik berealaxe jetxi gindezke, Ibaiotz-ko zubitik lenengoz eta gero Matxinbenta-tik dijoan bide-zabalera. Abiatu gaitezen ezkeŕera. Oŕa ugesia ta argi-ola beŕia, beŕia bezin edeŕa. Bi kilometroan ibaiaren ondotik joango gera. Ona Matxinbenta. Zubia igaro, tren-bidea ere bai, lenengoz bi aldetara so-eginda, ta beŕeun oin-artera bezela, leioak untzaz inguratutako baseŕia da «Sesiotegi». Aste-egunez ikustetik jai-egunez ikustera, kana t'erdiren bitartea. Lan-egunez, benetan, bakartsu egoten da baseŕia, eguzkitan etzanik dagoan zakuŕaren

tankeran. Bat-edo-bat gangaŕa bustitzeaŕen iru mail jetxi ta txuŕut batez atera egiten da. Andik puxka batera ere, aren «egun-onak» eta «aguŕak» belaŕizuloan dauzkagu. Euli-buŕunba ta kito.

«Sesiotegi»-n bi neskatx bizi dira. ¡Artaratzen oi diranek ederkitxo dakite! Eguerdi-aldean garoz, edo an esaten duten bezela, iratzaz zamatuta mendian beera datozkizu ta baseŕi-auŕean buru-gañeko meta iraulita zilipurdika bota. Ta orduan ikusten zaizkie arpegi-buruak oial zuri batez estalita, Usauri-ko inguruetan oitura dan bezela. Onek autsa ta zikiñatik ilëak jagon ta eguzkitik burua gerizpetu. Lepo-beeraňoko estalgaŕi oriekin ijitoak dirudite, baño ijitoak ez dirala dakian bestetaŕarentzat poliki baño polikiago artzen dituzte. Ordea zu mutil txukun ta ëenëea baldin ba-zera, bereala gordeko zaizkitzu artopetan arpegiz-arpegi jartzen ba-zatzaie.

Bazkalondoan, musuz ta soñekoz txukunduta, bai bizikletan biderik-bide, edo-ta, dantzan baseŕiko goiko gela zabalean. ¡Amaika txanpon ekaŕi zizkioten «Sesiotegi»-ri dantza aiek, gañerakoan on aundirik ez ba-zekarkioten ere! Luŕalde aietan eŕiak bata bestearengandik uŕutitxo daude ta maiz artu-emanak izaten dituztela, bi kurpilëkiko tramankulu orietan asko dago alde artan.

Baño esan nai genuan egun onetan, beste ïgandetan bezela, irurak ezkeroztik jendearen joera asi zala «Sesiotegi»-n. Ta auŕenetik lenen etoŕitakoen izkimizki edo ixkixalda baizik nabaritzen ez ba-zan, jendea etoŕi-ala izketa apar zuria bezela aŕotu egiten zan ta iñoiz paŕ-aldietan lertu ere egiten zala esan zitekean; edo-ta, esnea beroaren-beroz goratu egiten dan antzera, edariaren txinpartaz gal-gal jaŕita itzak gañezka zijoazkien ere.

Etxeko nagusia, tabernaria, begi zoŕotzdun gizona zan. Berekikoz ardotegiaren eztiak saŕerako iru mail jetxi-beaŕarekin zer ikusi ba'zuan; azkenean zankoak korapildu ta gaitz izaten bai-zitzaien goraka abiatzea! Artean ateak zabalik albait; zuloratu, zokoratu ta geldi, kaiolatik atera nai ez duan txori xaaŕaren gisan. Baño guztia esateko esagun ere saldu-maia eskubiratuta auŕez-auŕe zegoala. Onen atzeko goraño̲ko botil--eŕenkadak ez ditugu aipatuko, ezta bestelako mota askotako sal-gaiak, non-nai an bezelakoxeak dira, agian «Sesiotegi»-n baño geiago. Aldean non-eta demaren bat ez ba-zan, txapel goŕiko botiĺik ez zan azkatzen; baño alakoren batean bai ederki ustu ere, alik-eta basoen aztarna borobiĺaz beatza añako zuria mai-gañetan ez ikusteko eran. Apalategi artan, oi bezela, gutxien ikusten zana zan lodiena: ardo-sagia. Guri—¡jakin-nai txatxuak!— aŕotzen perietako tiro-jokoetan jartzen dituzten uso ta ateak iruditu oi zaizkigu ardo-sagiak; aiek bezela buru-lepoak zulo batetik kanpora izaten dituzte ta aiek jota burua zintzilik geldítzen zaien bezelatsu, sagia ustutzean, mutuŕa makurtuaz gañera masustaren koloreko odola erakusten du gaŕondotik beera.

Esandakoaz gañera, bada, baŕunbean bi mai, aulki bina. Atzean, ate bat; atean, gora igo̲tzeko maĺadia ta goitik beera maĺaditik gatozenerako orma--zuloa baŕunbea usmatzeko.

Oŕa bada, guk nai ezta bertaratu ginduztenean, aŕatsaldeko seiak-zazpiak ba-ziran ez dakit. Sartu ta bereala esaera ezagun bat aldatuta gogoratu zitzaigun: non salda, an sopa. Oŕa bada Antonio, ziĺargiña ta Juantxo gure adiskideak alkaŕekin beŕiz ere. Antonio-k esaten zuana: —«buruz gañeko lanak gobernatu ainbeste».

—¿Zer beŕi Usauri-aldean?

—Mixeri gogoŕa —Antonio-k—. Bazkalondoan, beintzat, ederki kimatu natxiotek jokoan.

Juantxo-ta «Sesiotegi»-n sartu ziranean gizonezko asko zegoan. Bi maietako inguruak ukalondoz artuak zeuden. Nekez ba-zan ere nolabait moldatu ziran. Ta bai sartu ere: exeri-beŕian ba'ziŕuditen aspaldian etoŕiak zirala, ta bertan lo egin bear zutela ere, ain asiera beŕitsuarekin asi ziran. Maiak, ongi zaituak. Deitu bakoitzean etxeko neska zaŕenak, ke tartean, arinki ekartzen zituan eskatutakoak. Gizonek, beraz, edan, eŕe ta mintza.

Bi mai aietako batean, ala ere, mintzatuz gañera baten-bat bertsotan asi zan. Gure baseŕitaŕen biĺeretan, ardoa edo sagardoa tarte dala, ez da zaĺa bertsolariren bat aizearen tokitik azaltzea. Ordea, izketak eta mizketak zirala, ezin bada ongi belaŕiratu itz--neurtuzko «ziriak». Algara baten ondoren, zertxobait ixilduta, onelakoa entzun bear izan zuan Letxa-ko txistulariak:

Letxa-ko txistulari,
oi begi-bakaŕa,
lan erdia izan-eta
dariok makaŕa.

Soñua nai ta nagi,
bear ez ta azkaŕa
txistua baño obeki
jotzen duk adaŕa.

Baldin neurtitz guztiak onen antzekoak botako balitu, ez litzake bertsolari txaŕa. Beintzat, ondoko guztieri zer paŕ-egin ederki eman zien.

Ta alaxen gerta oi da: izketan sendo ari dirala, gero-ta biziago egin bear, aldamenekoak entzungo

ba-du. Artean estutu gabe arituta, guztiak belarri zabal.

Juantxo ta iruron maiean istilu gogorra sortu zan. Antonio ta zilargiña buruz-buru biziki ari zirala-ta, beronen itzak karaxiak obeto ziruditela-ta, bion ojuak gora bezela besteen jarduna moteldu. Pixkana-pixkana guztion arreta aiekanatu zan.

Juantxo aritu zitzaien zirikalari. Juantxo-k ederki zekian bere lagunen beri. Zerk asaldatu zitzakean uraxe erdiratu ta bereala itz-bidean jartzen zituan. Bola-jokoa, brilek jo ez zezateken tokitik ikustea atsegin Juantxo-ri. Bein bat galbidean asten ba-zan, areri laguntza; bestearen txanda ba-zan, areri akulua. Ezin bada baten aurezka bi kidekoak ari. Aztakiña edo pixua ezkerera erortzen ba-zan, iñork ikusi gabe Juantxo-ren eskuak azta eskubiko aldera eramaten zuan. Beraz, izketaren gora-beerak, bein alde batera, bein beste aldera; ontziskak itxaso aundian gisan.

Antonio-k zion :

—Ta i ez aiz beñere Vigo-n izan eta nik Villagarsia ikusi diat, Santander-en egon niñukenean. Ta naiz itxasate guztiak ikusi ez izan, gizonak antzeman lezaiokek zer aundia dan, zer txikia dan, zer aztugarri, zer arigarri. Nere ibilleretan ni asko ikusirik nago ta i ez satorra baño geiago.

Juantxo tartetu zan :

—Ik nai dukana esango duk; baño ez ago zuzen. Villagarsia ez zegok Santander-en, Galizia-n baizik.

Orduan zilargiñak maltzurkeriz :

—Burdeos-en egon aizenik ere ez diat txinisten.

Esan zezaiotekean mingarriena orduantxe entzun bear izan zuan. Ederki damutu zitzaion biak nastu izatea. Villagarsia-ko gezurrak Vigo-ko egia ariskoan jarri. Villagarsia ikusia gezurra zala egia ba-zan,

Burdeos-ko egia gezurtu zioten. Antonio-k, beraz, eskua jaŕi ta arpegian zartakoa artu. Zilargiñari begietara begira onela esan zion:

—Ni Burdeus-en bezin ongi biziak, gutxi txapeldunak. Nere orduko ogibidea arozkintza ukan, ba' akik? Eta nik ongi irabazi, ondo jantzi ta nai bezela bizi niñukan. Nik orduan ondo ezkontzeko aukerarik erosoena izan nuala esango ba-nikek, ¿zer esango ukek? Jakin ezak ba' gure aroztegiko alabari—neska polita ala ere—gogozkoa nintzakiola ta berak ezik aren aitak ere oso begi oneko nintxiokala. Ni asko maite ninduteken, neroni beti biotz onekoa izan naukelako, ta bein baño geiagotan ene nagusi zintzo arek, aroztegian ari nintzala, «gendre», suia, deitzen ninduan.

«Ta ik ez duk ezagutu, ez uŕerik, ez ziłaŕik, ikusi ez dikan ire nagusiaren mutuŕa baño».

Antonio biotzberatu zan. Galdua zan, ordea. Gogo txaŕa ta maltzurkeria dagoan eztabaidetan beratasunak galgaŕi. Maltzuŕa astoaren gañean bezela samurtasuna azpian dijoa.

—Ori guztia egitzat emanda ere—ziłargiñak beŕiz —ez dik iñork emen ulertuko ain ogibide edeŕa izaki ta Letxa-ko apaiztegira nola etoŕi intzan. Batez ere, ardo txorta bat edan naiean atabakatik txintxin bat ateratzera ire burua beartzekotan. Ogibide beŕi oŕetarako arteza ez diat ukatuko, ire ardandegirako joan-etoŕi ugarieri begiratuz geroz beintzat.

Orain «Sesiotegi»-ko guztiak adi-adi zegokien ta azkeneko itz oriek zer paŕegin ederki eman zien. Antonio garaitua zegoan. Ta garaipenak emandako aŕokeriarekin ziłargiñak, beŕiz ere, ekin zion:

—¿Gogoratzen al aiz urdała «zeretik» ondotxo beteta igari egiteko asmotan uretara joan intzanean? Urak gaitz eginda, ni an izan ez ba-niñuan...

—Urak gaizkitzen dizkik auek—Juantxo-k bota zuan.

Onen ateraldiak bat-bateko iŕikarkara piztu zuan, olak-olakin jota bezelakoa. Batean bat zala, bestean beste, tarteka paŕaldi gozatsuak entzuten ziran. Zeatz esateko oĺar-jokoa zirudian. Bi lagun, bi gizon dasagun orain, alkaŕi itzez nork min geiago eman, beste askoen erdian. Batzun-batzuek ziĺargiña zuten paŕagaŕi, beste batzuek, Antonio, ta geienak, uste dutanez, bata-bestea. Askotan gertatzen dana: beŕitxukerian asi ta azkenean asaŕetuta buka.

Oraingoan Antonio-ren txanda zan; baño, egia, bein «erlojeruak» *iy'itoan* atera zuan uretatik burutik ondo—eta zankoetatik ere ez agitz—ez zegoaneko batean. Bera eskeŕ-oneko mutiĺa zan, artutako ondasunaz ez zan aztu-eŕexa, baño iñori on-egindakoak atabalarekin adierazteak ibazi guztiak galtzen ditu. Berekikoz zion: —«¡jardule aŕaioa!» Lenengoz belutu zan, gutxietsi zuten; baño bereala konturatu arek, batez ere, esan nai zionaz. Ez uretatik atera zualako bakaŕik, moskortuta zegoala esateagatik. Ta bata oraintxen eskeŕak emateko aukeran ez ba-zion esan, bestea ezkeŕez jotzeko, bai.

Ta iñori tarterik eman gaḃe bere baŕen naigabetuarekin jardetsi zion:

—Katuak buztana luze, besteak bera bezelako uste. I bezela, bide-erdian zeŕaldo, bizikleta aldamenean lo topatu indutenean goiz asko. Logaleak bakaŕik ez dik egiten ori. Asko duk, ala ere, gurdi kankaŕen bat gañetik ez pasatzea. To, ez litzakek gauza aundirik galduko. An izango ukan istiĺua sagia ala kristaua lertu ote zan jakitea.

«Sesiotegi»-ondotik zijoakean guztia ikaratu egingo zan an bat-batean sortu zan ler-gaiztoko algara

arekin. Zilargiña arpegia goŕituta su-gaŕetan jaŕi zan begiak diz-diz, besoak auŕean, baŕengo amoŕuak ezpañetako aterabidea naikoa ez balu bezela.

Juantxo ez zan, noski, par gutxiena egiña. Iŕiarekin xigaŕoa ezpañetan eutsi eziñik sal-mai atzean zegoan etxeko neskatxari alderatu zitzaion. Lasai-lasai tira zion poxpoloari piztutzeko ta txinparta bat neskari burura joan.

—¡Ene! ¡Nere ile gaxoak, ia suak artu nintxionan!—ots-egin zuan neskak.

—Barkatu, oŕen usterik ez nuan. Baño zure ile edeŕa ez kizkaltzeaŕen edozer egiteko egingo nuke. Batetik zuk alako ondasuna galtzea ta bestetik ni galera oŕen gile izatea, nere bizitza guztiko damu bizia nuke—jaŕaitu zuan Juantxo-k ordañez zurikatu naiean.

—¿Zer egingo zenuke bada, esan?—egin zion emakume jakin-naiak.

—¿Zer?—erantzun zion Juantxo-k—. Lenbizi nere txamar au kendu ta zure buru guztian bildu, alik-eta aize beaŕez sua itzali arteraño.

—¿Eta txamaŕak eta guztik su artuko ba-luteke?—oraindik ere galdetzera ausartu zan.

—Ba' orduan—Juantxo paŕez—nere bi besoen tartean estu-estu egingo zinduzket.

—¡Utikan! — izan zan neska mutilzalearen azkeneko itza.

Esan dugunez guztiz asaŕetuta arkitzen ziran Antonio ta zilargiña. Une onetan lerdea zerioten biak abotik beera zakur amoŕatuen gisan. Ta bere jabeari tarterik emáin gabe, Antonio Letxa-koak, pilarmonika kendu zion ta besoekin buru-gañetik atzeraka altxata, indar geiago emateaŕen sabela borobildurik,ba' zijoakion kolpea tiratzea. Baño zoritxaŕez, Juantxo neska-

rekin jolastutakoak arpegia besteengana biurtzen zuanean, izugaŕizko kopetekoa eman zion musika-kajarekin. Onek, Pirmin baño azkaŕagoa, ziñez, berealakoan berebiziko ostikoa atze-aldean ipiñita ordaindu zion; ta besoak atzeratuta uztai egiñik zegoala, ez erori, ez zutitu, ostikoaren indaŕez zuzenean joan zan tankera artan ziĺargiñaren gain, nai ez ba-zuan ere. Ta irurek, bakoitzak bere aldetik, luŕa jo zuten : pilarmonikak, Antonio-k eta ziĺargiñak.

Juantxo-k odola zerion kopetatik beera. Tiratzen duanak soka, entzuten du danga. Pirmin-ek musika galduta umore ona ere bai ta Antonio-ri ostikoz erazota, luŕean etzanda zegoala, ikaragaŕizko moltzoka jo zion, alik-eta aietako ostiko batean oña txamaŕaren sakelan sartu ta bera ere ziĺargiña zegoaneko ondoan erori zan arteraño. Onek, Antonio zualakoan, izugaŕizko kinkiñaŕoak pasatzen zizkion, ta Pirminek, ziĺargiñagandik zetorkionaz konturatu gabe ta piztia bezela suminduta, zankoeri eraginda, luŕean luze zegoala, jo ta jo ari zitzaion ostikoz Antonio-ri, bultzatakoan mai-azpira sartu zuala. Zakuŕak katuari, katuak xaguari.

Ziĺargiña bere okeŕaz konturatu zan ta Pirmin-eri lagata mai-azpira zaŕapoka joan zan, Antonio-ren gañean jaŕi ta ebain-ebain egiteko asmo onarekin. Pirmin ere gañeratu zitzaion Antonio-ri. Lengo lantegiari ekinda azpikoa txikituta leŕ-egin bear zutela zirudianean, piztutzen da Pirmin, joan danekoaz gogoak emanda, ta bizkar-atzetik zeukala erazotzen dio bere aldiko ziĺargiñari ezkeŕ-eskubiz iñon diran zartako gordiñenez. Ziĺargiñak bere burua laŕi ikusi zuanean, iges egiteko asi zan ta alako kaskaŕeko lazkagaŕia eman zion mai-baŕenari, berau irauli ta gañean zeuden otziak botata ontzitegia apurtu zuan.

Etxekoandreak, aurenekoz pilarmonika aidean ikusi zuaneko deadarka asi zana, orain ontzien otsarekin batean karaxika bizia atera zuan; orez gañera, aulkian exerita zeudenak aulki ta guzti erorita atera zutena. Au guztia, banoan, sudur-zintz bat egin orduko, begi itx-idiki baten bitartean gertatu zan. Iridun idurikoak zurikail biurtu. Pirmin ta zilargiña jo nai zituzten. Auek, orain alkarekin, arpegia eman. Etxeko gizona ere sartu zan iskanbilan. ¡Bai sarerako malak damutu ere! Emakume geiago jetxi dendara sesioa berdintzearen. Ta alako zarata gogora sortu zan iñork zein jotzen zuan ez zekiala; bada alkarekin naspilduta kalte egiten zioten batak besteari, ta zartakoak ematerakoan bidalitako tokira iritxi ez ta tartean artzen zutena jo. Ijito-auzia baño nastuago zebiltzan. Gizon batentzat erezago zitzaion zartakoz, ostikoz ta irañezko zurungilo artan sartzea egonean begira egotea baño. Pilarmonika gaxoak, begi batzuk gutxiagotuaren, bere bizi guztian ez zuan egun ikusi uralako dantza pizkor ta kemendunik.

Maiak, lureratutako egurezko zaldia ematen zuan. Antonio, zan bezin luzea, edo geiago, etzanda; korderik gabe zegoan oraindik. Edo-ta, guk uste dugunez, kordea zetorkionean loak artuko zuan, ain luzaro zetzan lurean. Jausitako aulkiak oraindik ba'zeukan igidura ta berauxekin batzuek eta besteak estroposo eginda, aulkia zala-ta, baten batek arpegiarekin oñetakoak topatu zituan beerakoan.

. . . . . .

Irakurleak barkatu bekit onen ondorengorik ez ba-dakit. Nik oraintxe gogortxo ari zirala igarita ospa egin nuan iskanbil artatik ta sekulan «Sesiotegi»-ra biurtzeko asmoa artuta daukat, naiz-eta «Sesiotegi» izena kendu ta «Goxotegi» jartzen ba-diote ere.

Nere ustez, gu bein-edo-bein lozoŕotik doi-doi esnatuta, leioa oi-ezko tokira aldatu dala ikus-iruditu bezela, alatsu zabalduko zituan begiak Antonio-k ere, zentzuko ariak naspiĺaturik.

IV

JAI-EGUNEZ AURETIK

Egunez aurretik asi zan jendea etortzen Usauri-n. Gu bertaratu giñanean, arratsaldean, Kale Nagusitik barrena eguzkiak oraindik ere argi egiten zuan ta, aurreko egunak euritsuak izanarren, egualdia oso itxura ona ari zan artzen. Usauritarak pozik zeuden, bada.

Ez aspaldiko urteetan bezela, ez zan zaldikiko gurdirik ibiltzen. Ta erritik geltokirañoko bide luzean, bultzi bakoitzari zai egoten zitzaion automobil berriak, azkar asko egiten zituan joan-etorriak, alik-eta jetxitako jende mordoa zatika-zatika artu ta toki bat ustu-ala erria betetzen zuan arteraño.

Enparantzan, goiko leioetatik, beetik eta nonnaitik oso arrera atsegiña egiten zieten etorri-berrieri. Orduntxen asten zan, bada, jende gutxi edo asko etoriko ote zan jakiteko garaia: zenbait egun aurretik ostatuan tokia eskatu zutenak, bein eta berriz etortzeko esanda bideratu ziran lagunak, urtero etori oi ziran ezagunak, dantza-zale guztikakoak eta kupel-gorri *barkileroa*. Onek kaxa bakarrarekin egiten zuan: geltokirañokoa (berak bakarrik zekian tokitik), geltokitik errirañokoa (sei errial onuntzkoa), beste ainbeste arakoan eta bost eguneko bizi-modua.

Arrai-pilla dagoan tokian ogi puska bota ta lenbizi iges ta gero biurtuta guztiak batera koskaka ari oi zaioten bezela, era berean, Pidel-en tarranta berriak zubia igaro ta Kale Nagusitik plazan azaltzen zanean, ozte guztia alderatu egiten zan ta, bein geratuta, alkarren gainka, etoritakoeri jeisten utzi bearrean, ba'ziruditen tontoreraño zetorren tarrantan igo egin bear zuteta.

Saskiak eta loturak eskuetatik zintzilik azaltzen ziran lenengoz eta gero, emakumeak buruak makurtuta, neska gazteak eta mutiĺak alderdi guztietatik; gure *barkiĺeroa* zapaiatik beera jetxi zan ta jetxi zuan bere kaxa, bi kurpil erantzita bera ere bakaŕik ibiltzeko naikoa zana.

Guztiak alkartuta an izaten ziran ongi-etoŕiak, esku-estutzeak eta, baldin baseŕitaŕak ez ba-ziran, muxukak neskaen artean. ¡Zegoaneko etoŕi zan jendetza polita! ¿Zer izango zan osterontzeko jai-egunetan?

Alako batean ikusi genituan igaz ere izandako Mirele (Miren Gabirele, Mirenele), Elizondo-koa, ta Margarite, amairu urtekoa, bere aizpa baño bost urtez gazteagoa. Josune-k, ostatuko alaba zaŕenak— gaztea ala ere— gogoz artu zituan bi adiskide maiteak. Eta onela, ènparantzaren erdian, margo askotako soñekoekin, aŕatsaldeko eguzkiak begiak erdi itxutzen zizkiela, polito bañon polito ematen zuten Usauri ta inguruko alaba lirañak.

Ester, Donibane-tik etoŕia, Bitorene-rekin batu zan: auxe zan eŕiko neskarik politena, baldin ainbeste neska politen artean, geiena nor izan autatzea gauza eŕeza izango balitz. Irun-dik etoŕitako Karmele-ri eŕiko sendalari gaztea elkartu zitzaion.

Enparantzaren bazter batean, «Tukulu»-eneko ta «Gaztienea» ardotegien bitartean, gizón eta mutil gazte piĺa eder bat zegoan itzalean.

Gizaseme guztien artean ba'zan bat ango jardunerí aditzea egiten ziona, baño bere burua aiengandik uŕutitxo zegoana. Bazkalondoaz geroztik urduri xamar zegoan gure mutiĺa. Egun ura etortzeko gogoaz ain luzaro itxedon zuan gazteak —oraintxe garaia zetorkiola— bere laŕitasuna baretzeaŕen giza-artea biĺatu

zuan. Andik ederki ikusi zezakean berak nai zuanaren etoŕera ta tartean iñork ezeren itxurarik susmatu gabe, gogoak ematean azalduko zan.

Ta oraintxe Mirele ta irurak pixka bat aldendu ziran, Martin (au zan mutīlaren izena) abiatu zan. Beintzat, Mirele etoŕi zan aurten ere ta azken egunetako kezkak aienatu zituan. Martin bildurtu-xamaŕa zijoan, ta ez da aŕitzekoa, ajol aundiko gauzaren bat iritxi bear dugunean uts txikiena egiteko oso bildur aundikoak izaten gera. Martin-ek baŕenen zerabilkiana jaso aundikoa zitzaion ta ainbestetan asmoak artuta, orain atzeratuko al zan, bada? Ez, berak ba'zekian igaz abegi ona egiten ziola, ta oraingoan begitarte txaŕik jaŕiko ez ziola uste osoa zeukan. Igazko Martin zala ikustean, arek eramango zuan poza! Ez-ukitua eginaŕen berak igaŕiko zion.

Ongi-etoŕia esanarekin batean Martin-ek eskua luzatu zien, bai Mirele-ri ta bai Margarite-ri. Neska biak legez erantzun zioten ta baita ongi-arkitua eman. Ixildu ziran. Bereala igaŕi zion mutīlak berak usteko aŕera ez ziotela egin. Zerbait geiago esatera ausartuko zan.

—Zuek emen ikustearekin oso poz aundia artu dut... —ta auŕeko urtea gogoratu naiean— igaz bezelako egun edeŕak izango al ditugu aurten ere.

—Eskaŕik asko —ta ixildu ziran.

Mirele ez zan iñori arpegi txaŕa jartzeko neska ta guztiekin beti adeitsua izanik edozeñeri zor zaion begitarte ona ta bear bezelako aŕera egin zizkion mutil gazteari. Martin-ek oriek guztiak ba'zekizkian, ta oŕetxengatik bere baŕena ez zan naikotu; berak uste zuana ez zuan ikusi ta itxuraz poto-eginda, gaitza zitzaion tankera ura, ta, alik ondoen irtendako tokira biurtu zan.

¡Ene, Martin-en ustearen okeŕa! Urtebetean uste osoan egon ta baŕenen aŕa. Urte osoan etortzeko zai egon ta itxoegitearen ordain ustela. Erabatez, atzerako gogoeta guztiak azterkatu zituan, ea naspīla noiztik sortu ote zitzaion. Arakatu zituan asieratik bukaerañokoak eta atzeratik auŕerañokoak. Ta ordurarte ez zan konturatu arian-arian bere gogapenak zenbaterañoko aunditasuna artu zuten. Orduntxe igaŕi zion nai ez zuana baztertu ta atsegin zitzaionari toki ematen ziola ta an gogozko gauzak neuŕia autsita amor ematen zutela. Baño bere asmoetan oker egon ba-zitekean ere, tira, joandako jardun gozoak eta batez ere aren agur pozkaŕia egi-egia izanda, etoŕeran beste ainbeste iruditzea, alako txorakeri aundia al litzake bada? ¿Edozeñek bere lekuan ez al luke ori bera sinistuko?

Martin bere usteetan ariñegi ibīli zala, aier zegoan; baño egia zan orobat bere asmoak len bezin gordeak euki zituala oraindañokoan ta, gordeak gorde, ez miñik, ez neke. Oraintsu itzegindakoaz ezin asaŕetu. Beraz, Mirele zan aldatuta zetoŕena. Ta ordurarte itsututa bizi zan mutil gizajoak, bertan zabaldu bi begiak. Igazko kabian aurten txoririk ez. Neska begien pozkaŕi ura Usauri ta bere inguruak utzita aŕas aztu zan gure mutīlaz. Aren eŕiak ez zion Martinen oroipenik gogora ekartzen, ezertxo ere. Agian, bitartean, besteren batekin edo bat baño geiagokin jolastua izango zan.

Artean Martin-ek urte osoan ¡urte osoan! iraun zuan beŕiro ikusteko gogoarekin. Oroipen biguña zana agitz samurtu zitzaion. Usauri-ko bazter guztiek maiz asko gogoarazten zioten neska lerdenaren egon-aldiak, neska lirañaren igarotaldiak eta alkaŕen itzaldiak. ¡Batez ere, Usauri-tik geltokirañoko bide arek!

Azkeneko eguna zan. —«Nik Donosti-ra joan bear izan nuan», bere buruari asi zitzaion Martin. —«Mirele Elizondo-ra zijoan amarekin. Irurak batean alkartu giñan, Pidel-en tarantan. Mirele ta ni aurez-aurre lekorera begira; aren ama nere ezker-ondoan. Itztxo banakakin asi nintzaion. Izketaratu giñan. Batzuetan bereganatu ta ixilago esaten nizkion nere gogozko gauzak, batez ere norbait oju ta zaratan ari bitartean. Bideko arkaitz bakoitzak oroipen bat dakarkit burura».

—«Baño nik diotana egi-utsa ba-dan ala ez, onetxek emango digu neuria. Amari tarantan ibilita itxas-miña deritzaion naigabe edo ongi egon-eza etori oi zitzaion; baño egun artan, naiz bildur izan, ondo baño obeto zijoan ordurartekoan. Mirele-ri, nerekin zerbaitxo itzeginda, amari zeozer esatea otu zitzaion ta.

—«Oso pozik zaude, amatxo —itzegin zion».

—«I bai pozik agonala —bereala erantzun zion amak».

«Egia esatera neroni lotsatu nintzan. ¿Al nuan nik uste ona izateko ziorik?»

Ta oldozpen auetan zegoala apaltzen ari zan ere. Nekane bere areba ta biak aurez-aurre ari ziran arats artakoa egiten. Anai-arebak bakarik bizi ziran etxe artan. Gurasorik ez zuten.

Aratsa zan, bada, ta etoritako guztiak enparantzaren erdian utzi ditugu. Ez; guztiak garaiz etxeratu ta nik uste dut Martin ta Nekane-renean bezela besterenetan oeratu-aurekoa egiten ariko zirala.

Alatsu izan zan Usauri-n jaien aureguna ta alatsu izan oi da beste erietan ere. Jendea jaietara etortzen da ta etoritakoak berek egiten dituzte jaiak. Bertakoak bakarik ikusteagatik ez lirake joango. Artean dijoana-

ri berdin zaio an topatuko dituanak bertakoak naiz kanpotarak izatea, baldin poza ta atsegiña izango ba-du. Baño jaiaren aunditasuna kanpotarèri zor zaiela aier ba-gera, atzipetuta-edo dijoazela esan diteke. Galdegiozute bateri zertara dijoan ta besteen artean jolastutzera esango dizu, urenak erantzun berbera emango dizu ta onelaxe urenaren urenak. Beraz, erian bertan gutxitxo dago ta guztiak besteen aitzakiarekin joaten ba-dira, berekin daramate jaia. Edo-ta, jaietarako dei-egitean ba'dirudi gezura egia biurtzen dala. Pipa-saltzale bateri gertatua. Alako tokitatik pipak erosteko asmoan deitu egin ziotela esan zioten txantxetan. Ta berari esandakoaz ezer aditzera eman gabe —egitzat bai-zeukan—, beñere erosi ez zutena artu egin zioten ta gure pipa-saltzalea deituta joan zala uste osoan etori.

Gañerakoan, erietako jaiak urtearen egun alaienak izaten dira, oroigarienak. Onelako gertaera bat noizkoa izan zan adierazteko, edo jaien aurètik ala jaien atzetik, edo aurètik urun ala atzetik alde, esan oi dute. Urte zar eta berriaren muga berberak ez du orenbesterañoko oroi-indarik, ez da oren aipagari.

¡Gazte gixajoa eriko jaietan eri dagoana! Ez da tamalagorik irundar gaztea Sa'martzialetan gaxorik egotea, iruñara Sanfermiñetan gaiztun edo usauritara Sanjuanetan oean ikustea baño.

Gauak, beraz, Usauri oso-osoa artu zuan ta eriko ate guztiak itxita zeudelarik, gizaseme zenbaitzuk, etxetik at, enparantzan gelditu ziran, alkarekin jolastu ta astakeriak egiteko.

Gauerdi-erdian izandako mutilen dantza, alkar-jotze, oju eta algarak ez ditugu batere aipatuko. Baño auzko mutuètik ilunpean besteen artera ogi-ta-jaki zetozen bi aiengatik, bai: zilargiña ta Antonio,

oraindik amabost egun ez asaŕetu zirala, aŕas aztuta, askotan bezela, adiskide-kideak zetozen.

Zilargiñak ixilka zionez Letxa-n, Ibaiotz-en, Bedoya-n eta Usauri-n saldu bear zituzten *fonografoak* eta josi-makinak!

¡Ta *fonografoa* aipatuta «Sesiotegi»-ko pilarmonikaz batere gogoratu ez!

V

DONIBANE

Ez da alaigaŕirik musika bezelakorik; ez da, ez da t'ez da. Eresertiak (musikak) ez du bioztaŕik ematen. Musikariek eres poztun bat jotzen dutenean gure izate guztia aldatu egiten zaigu, gure baŕena lasaitu ta gu, ustegabean geundenak, bat-batean txospertu egiten gera. Eresiak egoak ematen dizkigu ta gorputzak bere aztundasuna galtzen duala-edo dirudi; entzukiña ta biotza bakaŕik gelditzen zaizkigu ta ¡àn sortzen dan atsegin gozoa! Batzueri, ala ere, belaŕi-zulotik oin-mutuŕeraño sartzen zaie dar-dar buŕundara ta zankoeri jokoan eragiten die.

Oŕengatik, goizeko zazpiretan *pasodoble Rada* joaz musikariak Usauri-n atera ziranean eŕi guztia aidean jaŕi zan. «Tukulu»-eneko neskameari edan-ontzia eskutik erorita lertu egin zitzaion luŕean. Bi bider edo geienaz irutan, urtean, izaten zan musikarien otsa Usauri-n. Oraingo onek beŕi onak zekarzkian: eŕiko jaiak, soñeko beŕia, meza nagusia. Batzuk kalean aŕapatu zituan; besteak oean etzanda, iratzaŕi, ta gañerakoak —ondoen-ondoenak— otsak esnatu zituan. ¡A zer esnatzea naiko lo eginda soñuak esnatzen dituanena! Iŕia ezpañetan, zankoak luze ta bizkaŕaren gañean jaŕita bi belaŕietatik adi-adi egoteko. ¡Ta zer atsekabea eresia uŕutira iraungitzen danean! Ez da alaigaŕirik musika bezelakorik; ez da, ez da t'ez da.

Beko kaletik goiko kaleraño, zubi-aldetik pelota-plazako atzeraño, ereslariek aguro eman zioten eŕiari bira osoa; gure eŕia ez bai-zan uri aundikoen gisan

irteziña ta uritaŕek alkar ezagutzen ez dutenetakoa. Ereslariak abian asita guztia mugitu zan, eŕitaŕaz gañera sukaldeetako zartagi ta ontziak, eta onelako garbiketan, abian ezik, laxteŕean asi zitzaion edan--ontzia «Tukulu»-eneko neskameari.

Ez dugu esango ereslari goiztiaŕak onenetakoak ziranik. Egun batzuk bakaŕik saiatuta naikoa ta geiegi egiten zuten. Oŕez gañera urte guztian ez zuten txanponik irabazten. Ta eŕiko jaietan dantzagaŕiak ¡alajaña! mutil gazte aiek jo bear.

Amar-bat lagun izango ziran ereslariak, auzokoak, ta ondotxo bizi ziranak geienak. Oŕelako eginbideetan an ez da iñor lotsatzen uri aundietan bezela. Aberats baten semea zan guztien auŕetik atabala joaz joaten zan mutil koskoŕa. Guk munduko goraberak, txarkeri ta gaitzak dakizkigunak, oso poz aundia artzen dugu auzolanen jakiteaz. Eta dirurik ez, ta bideak eta pelota-tokiak-eta al dutenen artean auzolanez egin oi dira, Igeldo-n etxe bakoitzekoak txandaka egin zuten bezela. Eŕitaŕen elkarkunde ori oso begikoa zaigu.

Bein betiko dasagun, bada, pelota-tokiko aŕietatik kanpora lur goŕizko toki zabal bat zegoala. Zabal ura, eliz-atze, «Gaztiene» ta «Tukulu»-eneko enparantzarekin batera zetoŕela; beraz, zabalgune polita. Lekune artatik at ez zan jolasik izaten. Luŕean sartuta tantai tenteak jaŕi zituzten pelota-plazan, mutuŕean bandera bana erantzita. Ereslarien jo-tokia ere gertu zegoan. Urtero-urtero gorde-tokitik olak atera ta eraikitzen zuten; ostera jaiak igarota olak azkatu ta uŕengo urteraño ko itzalpea. Jo-tokiak ez zuan estalperik; ezta beaŕik ere. Dantzariak euripean aritu eziñean ¿zertarako jo? An musika ta dantza beti alkaŕekin ibiltzen ziran,

«*baileak* eta soñu ederrak
«engañaturik gabiltza
«animarentzat kaltean dator
«gure munduko bizitza».

Argi-konturako zilargiña zuten mutil.

Tarteka-tarteka, geiegi ez erretzearren, eriko txinelak txibirisko bat edo beste botatzen zuan.

Karmele-k bere idazkia bukatu zuan. Karmele Josune-ren adiskidea zan ta onek deituta jaietara etorria. Bai-ba', Josune Irun-era joanda Karmelerenean egona zan. Josune azken-aldian maiz joaten zan Irun-era agiñak antolatzeko. Gañera ortzgin--sendalaria gogo betezko gaztea zitzaion...

Karmele-k auxe idatzi zuan:

«Ene guraso maiteak: Oso ederki etorria natzai«zute. Eri au ondo arkiturik nago. Josune adiskide «ona dut. Arratseko beatzietan apaldu nuan: baatzuri«-zukua, bi arautz tomateakin (oliotan igari), saieskia «pipárakin ta mai-azkenez gazta ta sagar gaziak. «Ardo napara, oso edera. Ez dut esan nai ori guztia «jan nuanik, ori guztia ekari egin zidaten. Naiz nere «gogozko jakia ez izan, ba'liteke emen jangalea «etortzea, ustea ala daukat jaria.

«Danetatik zerbait jakin dezazuten, emengo jato«kian zoko-apalategi bat dago, aspaldian bezela, iru «lauki edo kuadro almonedaetan ikusi oi diranetakoak, «etxeko jendearen beste bi antzeski (eretratoak) ta «España-ko eregearen irudi bat eregetu berian.

«Oean sartuta ondoratu egiten naiz. Ta ateratzen «duan soñuarekin ba'dirudi neri min eman bearean «oeak berak saietsetan min artzen duala.

«Ala ere lo ederki egin dut. Elizako joaleak din-dan «ituna ari zuala loak artu ninduan. Esan didatenez «gauean istilu gogoŕa ibilli dute enparantzan emengo «mutil gazteak. Nik ez dut batere nabaritu.

«Orain mezetarako gertutzen ari naiz nere burua. «Aŕituko ziñateke : meza nagusia amaiketan da.

«Emen, ordua auŕeratzen danean, ordu bat atzerago «izaten dira mezak, bazkariak, bezperak eta danak.

«Azkaŕean nabil eta agur, uŕengorarte. Mun «sendoak nere aita ta ama on orieri.

Karmele.»

Amaiketan, bada, meza nagusia zan. Iñoiz baño txukunago zebilen jendea : zaŕak eta gazteak, neskak eta mutilak.

Ayuntamentua gertu zegoan eskaratz zabalean. Ereslariak ere bai, kalean; ta bakar-bakaŕik ikuŕiña (estandartea) jeistea palta. Gizon batek atera zuan bigaŕen bizitzatik, lenbiziko bizitzakoari eman zion ta onek bere aldiko kalekoari egokitu. Antzin-antziñatik era onetara ateratzen zuten guztien auŕean.

Zuzendariak aginduta ereslariak asi ziran ta jaŕaigoak elizarako bidea artu zuan : lenengoz ereslariak, uŕen ikuŕinduna ta azkenez udala (ayuntamentua) alkatea ta mugazai-nagusia buru zutela.

Gu kale Nagusiko maladiatik igo giñan elizara. Gure ondoan geneuzkan emen izendatutako geienak. Bertan izanda ondo ezagutu bear.

Martin ere ikusi genuan. Goizeko ereslarien otsak esnatu zuan au ere, ez naiko lo eginda ordea. Lelengoz Mirele etoŕi zitzaion burura, ezin bada burutik kendu. Aldizka asaŕe egoten zitzaion ta itz gogortxoak esan ere bai, neska «aldakor» ta «buru arin» arengatik; bestetan ezti ta leuna, «on-utsa» ta «polita» zalako.

Maitea itxasoan
ontziz
zijoan.
Ni aren atzetik
ekin
urean.

Urundu ta laister
galdu
zitzaidan.
Ta ni ler eginda
ito
bidean.

Azkenez bizitu zan ta galendurik Mirele-ren biotza bereganatzeto asmo sendoa artu zuan. Orengatik orain, mezetarakoan, ez-ikusia egin zion, ez baleki bezela; baño neskak bera ikusteko aukeran, onela Mirele-k ez zion igariko barenen zebilkiana ta artean Martin ikusiaz, bene ta txintxo, aureko urtea gogoratuko zitzaion, berari maizegi, sariegi, gogora zetorkiona.

Oraingo aldian erestegira (korora) joan giñan meza nagusia entzuteko. Bete-betean zegoan ta mugazai asko. Abeslari-taldea ere gertu zegoan. Zoko batean eriko mutilek «Kuku» deitzen zioten agure xar bat, burusoil ta elbaritua lo zegoan. Apaizak azaldu ziranean itsu-aurekoen gisan laguntzen zion berogeitamar-bat urteko gizonak ukalondoan ikutu egin zion. Ta «Kuku»-k bereala ernetuta iru bider segituan egin zuan gurutze santua.

Meza asi zan ta abeslari-taldea ere bai. Oraingoan iru apaiz zeuden aldare nagusian. Abeslarien artean ezagutu genituan goizeko atabalari txikia, sakristaua, eriko sendalaria ta organista bera ere; onek eskuekin

jo ezik (eta oñakin ere) abestu ere egiten zuan ta goizeko ereslariekin zuzendari ta zanpa-jotzalea zijoan. Soñu zoli ta bizien magalean, entzukiña batere uŕatu gabe, loak artu zuan «Kuku» eta... aren laguna ere bai.

Donosti-tik abeslariak ekaŕi zuteneko urte ura ezik, iñoiz bezelako meza nagusia izan zan Usauri-n. Batere sermoirik gabe ¡ordubete ta laurden iraun zuan meza nagusiak!

Onuntzean jaŕaigo berbera udalaraño, alkatea ta mugazai-nagusiaren erdian eŕetore jauna artuta.

Ikuŕiña jetxi bezela igo zuten.

Donibanetan (Sanjuanetan) alderdi artan jai egiten zutela-ta, lenbiziko egunean bestetan baño askoz ozte aundiagoa izaten zan. Bazkalondoaz geroz inguruko eŕi guztietatik asko ta asko etortzen ziran Usauri-ko jaietara. Baño batez ere ots eta zaratarik aundiena ekartzen zutenak, irundaŕak; beren motozilketa ta automobiĺekin baztar guztiak aŕotzen zituzten. Gizaseme edeŕak, mardulak, eŕietako jai guztietan eŕiz-eŕi ibiltzen ziran, erleen gisan lorerik-lore. Eŕietako jendeak begiak borobilduta artzen zituan.

Guk ezagutu genuan mugazai batek, aspaldiko urteetan euskeraz «pazatu ongi» bakaŕik esaten ikasi zuanak, orien izate ta ibiĺeraz aŕituta ala zion (erderaz): «—Jende au ez duk gure eŕikoa (andaluza zan). Alajaña, maukutsik, zigaŕo aundia ezpañetan eta kurpiĺen soñua sakelan. Motel, nere eŕian ez ditek alako zigaŕo puska ta oŕenbeste dirurik iliĺiko, ez, peseta bat geienaz ta ura txanponetan, ots geiago ateratzeaŕen; baño mutil gazteak «kuŕo» ibiĺi txamar txiki ta estuarekin, ibiĺera txotil ta oargaŕia, besoak zankoekin batera, orixe, bai».

Ta ala zan. Gure mutil sendoeri berdin zitzaien

maukutsik eta burutsik etortzea, baldin pilarmonika berekin ba-zekarten beintzat.

Aiek enparantzara iritxi ziraneko «Gaztienea»-ko aurean ta «Tukulu»-enekoan aulkiak eta maiak jariak zeuden. Ta aiek etori-berian bateko maiak artu ta besteko aulkiak artu, «Gaztienea» ta «Tukulu»-k bat egiten zuten.

Zilargiña orduntxen azaldu zan «Gaztienea»-ko aldean oetik jaiki beria; ez, ordea, eguerdi-ondoko lo-kuluxka eginda, aratseko lozoroa egunez etzanda baizik. Ez zuan bazkaldu, ezta nai ere. An ziran, ezagunen artean, Antonio, Juantxo, Manuel ta Paulino; au, Erezil-go izenkidearen antzera, eriko gizaseme gogorenetakoa zan.

Maiak edariz beteak zeuden. Izketa-jarioa, par--algarak, botilen azkatzeak, mai-artetik ibiltzea ta bultzatzearekin, naste-boraste orekin, erotu egin bear, erotu. Neskameari «Joxepantoni» jari zioten izena irundarek, ez Joxepa ta ez Antoni ez izanaren. ¡Ez zuan lan makala eraman! Plaza berikoak ezetz orenbeste jirarik egin iñongo aldetara.

Erdera ta euskera nastuan zebiltzan. Guztiak itzegin naiean iñork entzuten ez. Ta deadarka aritu bear. Batez ere gangara ondo bustita gero. Alako batean, oregatik, pilarmonika-soñuak aizea uratu zuan ta bat-batean geienak ziran kantari. Onetan irundarak ziran nagusi. Berek ekari zuten soñularia ta beren gogozko abestiak abesten zituzten. Aldizka bat utzi, bestea asi. Tartean bateren bat paragari. Ajola gutxikoak ba'ziran aien artean. Edozeñen aurean sendo itzegiteko bilduŕik ez dutenetakoak, aien aldean ezagunik ez ba-da ere. Urena.

«Calcule usted, pues, pues, el alirón...»

donostiarén aurezkako abesti bat asi zuten. Ezin bada aztu. ¡Donostiar gaxoak! Ostikoka baldin ba-da, oriotarak irundarén alde; estropadetan, irundarak oriotarén alde edo, obeto esateko, donostiarén aurezka. Len tolosarak bezela orain iruñarak irundarén ta oriotarén alde. Bi ogi puskaen artean aragi-xerra artu oi dan bezela, ala estutuko lituzkete guztien artean.

—Obe lukete donostiarak bezelako jokalari onak balira—, norbaitek leize-zulotik itzeginda bezela esan zuan.

An zegoan, bene-bene, Antonio, beñere itzik atera ez zuana zirudiala. Artean bera zan aboa zabaldua. ¡Noski! «Babo arraioa» —esango genioke— iskanbil sortzalea orain ere. Aren lagunak bildurtu ziran. Ez zioten entzun. Batek bai, begiratu zorrotza egin zion. Ekaitza ba'zijoan lertu gabe. Antonio-ren lagunek onen buru gañetik ikusi zuten igarotzen. Egualdia baretu.

Ta zoko ura zoramena ba-zan, pelota-tokia poliki asko zegoan. Arietan pelotan ari ziran; lurezko zabalgunean, egurazten, ta bien arteko zerrenda bat gizon pelotaka ikusten.

¡Usauri ta inguruetako neska panpoxak! Arpegi alaiez betetako tokia zan ura. Aruntz eta onuntz ba' zebiltzan bi gizako gazteak.

Mutilek neskatxak nai
neskak mutilak, bai
gazteak diran nonnai
beti izan oi da jai.

Noski, alkarren ezagutza ta ondorengo maitasuna baño atsegiñagorik ez dute ezertxo ere gazteek. Ta jaietara dijoan gazteak onelako asmoren bat ba'daramala esatea ez da geiegi esatea izango. Zeozerk jo-

lastu dezake, baño bere biotzarako zerbait iritxi ez ba-du, gaztetxoa ez ba-da, jai alairik ez. Geiago iritxi ta alaiago etorri. Maitasun-arazoetan asiberria danak pitin batekin aski izaten du luzerako; zaletuak, berriz, asko bear ta lenago aitu. Gaur dan egunean zalegiak dira gazteak gisa batekoak bestekoeri itzegiten ta alkarri laguntzen. Gaur adiskidetu-errezak dira gazteak. Artean garaiz ta onean izaten dan maitasun benekoagatik iñork ezin dezake gaizki esan. Kristauaren izakerak berekin dakar. Gañerakoan, norberaren gogokoa arkitzeko lei amorratua izanarren, Jainkoak nai duana baizik ez du idoroko. Ba'dirudi Jainkoak gaztea ari batetik zintzilik daukala ta tiraka-tiraka nai bezela ibilita gero, nai dituanak eta nai duanean alkartzen dituala. ¿Ez ote dugu ikusi iguinduta ta gaizki esaka zegoan neskatxa azkenean len nazkagarritzat zeukan mutillarekin zoratu-txaldandurik ezkontzea?

Baño oraingoz utz dezagun arlo au. Agidanean barrenegi sartu gera pelota-tokian egurazten zeudenen asmoetan. Ta esagun an ba'zala zer atsegin izan.

Oraindik ez zan musikako garaia ta bitartean eguraztokia jendez beterik zegoan. Barkillaroaren txirringa arratsalde guztian larrapo-urubiaren gisan. Neskak, txortak egiñik, besotik elduta. Irundar batzuk exerita egotez aspertuta oztearen artean zabaldu ziran.

Ba'zan bat burutsik eta maukutsik —gizaseme sendoa ala ere— begiak diz-diz, zenbait ikusleen erdian amaika tentelkeri esaten ari zana. Betetxoa egoki ta lendik ixilinetakoa izan ez ta orain ardiak atzetik baba bezela itz-jario zebillena. Bere moduz ari zan izketan; bururatzen zitzaizkion txorakeri guztiak abotik esan, iñoren aurean ta urrutitik entzuteko eran. Aren inguruan bilduta neska-mutil asko zeuzkan, aundixeagoak ere bai; parragarritzat zeukaten ta ergel-papera nola

egiten zuan ikusten. Zer esan ez zetorkionean ikusten batekin asten zan. Au lotsatu ta beste guztiak areri begira. Ta onela lolo utsa egiñik ba'zebilen arte artan. Beste batean prantzesak peritan oi duten bezela, deika asi zan piztizarak erakutsiko balitu bezela :

Entrez, passez, pour voir
«toutes» les animaux :
l'âne qui danse,
le cochon qui chante,
la gallina «purra-purra»
l'ours et la «txakurra».

Uralako kankalua adi-eziñeko gauzak esaten entzun ziotenean arritu zitzaioten ezpañetan zer naste ote zerabilkien; ta prantzesen izkerari antzemanda, par egin bear «la txakurra» esan zuanean.

Antonio, ordea, bertan zegoana, ezin ixilik egon.

—Prantzesez tutik ez zekitek eta beren buruak prantzestzat egin nai mugertzean (muga-ondoan) bizi diralako; artean oriek prantzesez nik latiñez baño gutxiago zekitek, aisa.

Esana esan, tiratzen dio irundarak mutukoa — len begiratu txarra egin ziona izaki— ta, edo neuria gaizki artu ala Antonio-k burua makurtu, orain ere ekaitza buru-gañetik aldendu.

¡Nork esan bear, Juantxo ta zilargiña Antonio-ren aldezka! Jari ziran tarteko ta egiñalean eragotzi zioten irundarari jotzea. Aldizka ba'zirudian biak bota bear zituala, alako sasoi oneko mutila zan ordurarte ergel-utsa zebilena; orain, ordea, bere kemen guztiaren jabe, ez zuan ematen burutik gaizki zegoanik.

Antonio, kopeta ilunduta, bertan gelditu zitzaion, Gibelaundi urkapean baño lasaiago. Tartekoak, kanpotarra baretzearen, aitzaki guztia Antonio-ri ematen.

Alegia ez jaramonik egiteko, iñorengatik txarki mintzatzeko grin txepela zeukala ta bein baño geiagotan «no quiero»-ko ederrak artua zala, ezertzat uzteko. Baño bereala irundarrari lagunak etorri zitzaizkion eta baita besteeri. Ta len Antonio-ren arlo bakarra zana, une onetan guztiak alkarren aurrezka jarri, asarrean irundarren eta usauritarren aitzaki berriak sortu zituztelako. Pelotakari utzi zioten, enparantzako ozte guztia bildu zan, itzak eta itz gogorrak nork jaso aidean : «—Betor onera.—I ez aiz gauza.—¡Jo ezak!», ta eskerrak Paulino-ren etorrerakin aurkalarien indarrak berdindu edo Antonio-ren aldera geitu zirala, bestela ezin geiagoan batzuen batzuek julipa ederra artuta egon bearko zuten.

Naiz iskanbilak orren itxura txarra artu, uste baño lenago paketu ta andik pixka batera jendea len bezin lasai asi zan. Urte artako jaiak utsagatik ez ziran ondatu. Ta guztia Antonio «baboa» zala-ta.

«Tukulu»-eneko baztarrean emen aipatu ditugun neska geienak edo guztiak zeuden mordo batean : Josune, ostatuko alaba, zutik ate-ondoan, ta Karmele, irundarra; Mirele ta bere aizpatxoa, Elizondo-koak; Bitorene ta Ester, donibandarra. Martin ere an zan ta gure arloarako zer ikusi ez duten beste usauritar gazte batzuk. Batzuk eta besteak exerita, len esan dugun bezela, mai eta aulki aietan, mutilen eta neskaen artean bear bezelako tartea zegoala.

Mutil gazte aien artean guzitakoak ba'ziran : izkirimirizalen bat, sila okerreko aldera jarrita bear ez dana esateko adarra ortza tartean artzen duteneko beste; mutil eratsuak, egokiak, alik-eta garbien itzegiteko leiatzen diranetakoak, zurikatzaleak...

Arte artan, ereslariak asi bitartean —seiak bereala joko zuten— jardun polita zerabilkiten gazte atsegin-

gaŕi aiek. ¡Zer samiña orain oŕen zintzo ta burudun izan ta gero burua galduta dantzarako lotu-beaŕa!

Martin bere aria iruten ari zan. Al zuan bezin ongi eta egoki zetorkion guztitan, bere naia Mirele-rentzat zala erakutsi nai zion. Mutil apalagorik ezin arkitu, on-utsa zegoan. Nondik bere atsegin izan ta bere din agertu nai. ¡Zein polita zegoan! Ura kenduko balioteke, arek ezetsiko balio, berak beretuko ez balu, zer gaitz goŕia!

¿Trinketea? «Antxitonea» edeŕena (Elizondo-koa); kaska motsak baño, mototsak naiago (Mirele-k ile luzeak izaki), ta lodixka baño nexka mexka obeto. «Nexka mexka»-k par eragin zion Mirele-ri. Martin zein aldetatik zebilen ederki ulertu zuan Mirele-k eta besteren batzuek ere bai: mutilaren esanak txuxenka zijoazen neskarengana ta, egia esateko, ez zioten batere miñik ematen; atsegiña, ordea, bai. Aitortu bear dugun gauza da Martin-ek aŕatsalde artan bere irutegia ederki zeramala ta oraintxe igazko an bertan alkaŕekin egona gogoratuta, orduko sasoi berean jartzen ari zan neska. ¡Gizonaren menderatu-beaŕa!

Baño une batean an gertatu zana sinistera emateko egizko irakurgai onen egileak ezin asmatu nola esan, batez ere bi gazte aiek leialak zirala aditzera emanda gero.

Ereslariak bat-batean asi ziran ta Martin-ek, aitzin-gibel so-egin gabe, iñor auŕea aŕapatu ez zezaion, berarekin nai izan zuan Mirele dantzarako. Musikaren otsak bear baño geiago alaitu len alaitxo zegoana ta, agidanean ariñegi, dantzarako keñua egin zion buruarekin neskatxari. Mirele-k burua makurtuta ez zion deus jaramonik egin. Orduan Martin altxa ta bereganatu zitzaion ta dantzarako beŕiz eskatu zionean:

—«¿Uste al duzu zakarkeriak eder zaizkitela, edo-ta, zertzat artu nazu?»—erantzun zion.

Martin otzandu zan, bere adore guztiaren jabetasuna bearekoa izan zuan itxuraz aterako ba-zan, ta barkapena ta zor zitzaizkion itz onak esanda beriz ere dantzarako eskatu zion. Neskak ezezkoa eman.

Tximista lertuta bezin zearo ixildu ziran guztiak. Banaka batzuk altxata dantza-plazara abiatu ziran. Martin-ek, lotsaren lotsaz suminduta, bere exeri-tokia artu zuan arpegiko zimurik gabe.

Karmele-k berekikoz : —Damutuko zain.

Josune-k : —Ederki egiña.

Bitorene-k : —Tamala da orixe.

Ester-ek : —Neri eskatu balida...

Neskameak : —¡Tuntun alen tuntuna!

¿Damutu? Kopeta ilunduta, burua erne, zipotz-itxuran, aldi batean iraunaren, gaizki egiñaren damua ba'zetorkion. Ta geienak dantzara aldeginda ia biak bakarik gelditzen ziran alako batean, neska altxatu ta bai dijoakio.

—Nai ba-duzu dantzatuko dugu —esaten dio.

Besteak ezetz buruarekin.

Orduan agitz lotsatuta :

—Gizon dan gizonak ez dio ezetzik esaten neska bateri.

—Neska dan neskak ez dio mutilari dantzarako eskatzen.

—Len ezetz esanda agian gaizki egin dutalako, nere zora ordaindu nai nizun.

—Zuk neri lenago ezezkoa eman eta orain nere txanda; ora zorak kitatzeko beste era bat.

¡Ene, ene, ene! ¿Zerk eldu zien gazte aieri? Bi bildots borokan, esango genuke. Gure bizitzan bai dira etxetik atera bear ez genukean egunak eta aiek

biak aŕatsalde artan kaleratu ez ba-ziran obeto lijoakie. Baño ¿nolatan sortu zitzaizkien oŕelako kemen eta gaĪenak? Emagun Martin zakar xamar aritu zala keñuarekin, Mirele aŕoxkotu ta Martin zertzaz mindu ba'zuala. Baño ¿neska mutiĪaganatu? ¿Ta mutil zitalak bidaldu? ¡Jesus, Jesus, Jesus!

Utzi dezaiogun denborari bere lana egiten, biotz aiek baretu ditzan, guk ez dugu nai aien baŕuetan sartu. Denborak berea egingo du. Aldia ez balitz negaŕez igaroko bear genuke gure bizitza etxekoren bat iĪez geroz.

Guztiak plazaratu dira. Ase ta ler dabiltza baltsazale nasiak. Oraintxe dantzalotu-zaletasuna ederki etxeratu zaigu euskalduneri. ¡Ta nik al dakit noiz arte! Martin eta Mirele ezik, beste guztiek bein-edo-bein alkaŕekin topo egiten zuten. Ez batek, ez besteak, ez zuten iñorekin dantzan egin. Obe.

Usauri-ko neskatxak ba'zuten aŕats artako jakia.

(Jaŕaituko da).

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1927'ko Uŕila'ren 27'an.

Aipatzen diran euskaltzain jaunok bildu ziran: Azkue, Urkijo, Landeŕetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe eta euskaltzain-ordeko Oleaga ta Ormaetxea jaunak. Otoitzez asi da batzaŕaldia.

I.—Jabon sailari dagozkion arazoak aipaturik, udara ontan egin diran euskeraren aldezko lanez itz egin da. Aita Olabidek esan digu, Jesusen Lagundian euskera ikastea agindutzat ipiñi dala, angoxe *novicio*-arentzat, Ta Azkue jaunak Londresko liburutegian egin dituen lanen agerbide dat irakuŕi digu; antxen aztertu bai-ditu Mikoleta ta beste batzuen eskuidatziak.

II.—Eusko-Ikaskuntzak iragartzen diguna autuan erabili da. Onek aurtengo udaran, Udaraldiko ikastarotxo bat eragin du ta euskerari dagozkion saĺean, erabaki batzuek artu dira: Oietan bat auxe: Euskaltzaindiak, Itz-beŕien ardura atazaz artu dezala, edo ontzat arturik orainartero babiltzanak, edo batzuen-batzuek onetsirik, edo bear diranak beronek sorturik. Lan au ezin egin liteke berialako batez, eskaliak nai duten bezala, baizik asti ta pitinka ibili bear da lan onen elburuan. Gañera Euskaltzaindiaren lengoxe lana da auxe, ta utsune abek beteko dirala deritzagu, esku-arteko iztegi beŕia argitaratzen danean. Ara beste eskaria: euskaltzain Sebero Altubegandik auxe: jaŕi ditzala idazkitso batean, idazleak geienez egin oi di-

tuzten utsunak ta ongi idazteko arau batzuek. Altube jaunak entzun du ta ezin ukatu duelako bere laguntzarik, agindu digu arazo onen lana. Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta amaitu da batzarāldi auxe.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1927'ko Urila'ren 28'an.

Aurēko batzarāldian aipatzen diran jaun berak datoz, Azuke maipuru dala.

I.—Len aitatatu diran lanak aurera eraman nairik, Azkue jaunak, alako araubide batzuek irakurī dizkigu, batez ere itz-berien sortze edo arbuiari dagozkienak. Garbi eta argi egindako arautxo abek euskaltzain bakoitzari bialiko zaizkio, garai eta adi onez zerbait egin edo erabaki dedin. Azkue jaunak berogei urte abetan oraiñarteño sortutako itz-berien xerenda bereganatuta dauka. *Fonetismo* berezi baten batasuna eragin bear da ta era batez idazkera ta morfologiari dagokiena.

II.—Aita Intzak irakurī dizkigu, Aita Justo Mokoroak Lardizabalen Testamentu zar eta berīko kondairan idoro dituen itz-berī, esakuntz, joskera ta esakerak. Lan auxe ezta nolanai egiña: onetsi du Euskaltzaindiak eta beronen *Euskera'n* argitaratuko da.

III.—Eguskitza jaunak Mogel eta beste idazle batzuetatik ateratako itzak ekarī dizkigu. Azkue jaunaren iztegian badaude bañan beste adigai batez. Oregatik argitaratuko dan iztegian ezariko dira.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzarāldi auxe.

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzaren Gela nagusian 1927'ko Azila'ren 24'an.

Emen aipatzen diran euskaltzaiñak bildu dira. Azkue, Urkijo, Landeŕetxe, Kanpion, Olabide, Intzagarai, Altube, Lakonbe Etxegarai. Urgazlerik batez.

I.—Kisaldatzea egin bear da, araudiak agintzen duenez ta autarkitara jo da. Euskaltzainburugorako onelaxe datoz autarkiak.

Azkue jaunarentzat 8 utsean I.

Iker-sail buru izateko: Kanpion jaunarentzat 8 utsean I.

Yabon-sail buru izateko: A. Intzari 8 Urkijo jaunari I.

Zadorlari: Intzagarai 8 Etxegarai I.

Diruzaitzarako: Altube jaunarentzat 8 A. Intzarentzat I.

Gutunzaitzarako: Lakonberentzat 8 utsean I.

Beaz beste bi urterako Euskaltzaindi-kisa onela izango da.

Euskaltzainburu: Azkue. Iker-sail-buru: Kanpion. Yabon-sail-buru: A. Intza. Zadorlari: Intzagarai. Diruzai: Altube. Gutunzai: Lakonbe.

II.—Itz-beŕiak sortu edo lendik diranak aztertzeko eta Iztegi beŕiaren gertu-lanak eragiteko batzorde bat sortu ta batzorde auxe Azkue, Altube ta Eguskitzak egingo dute. Lotazilan astero bilduko dira Bilbo'n ta abek egingo duten lana Euskaltzaindiak ikusiko du Ilbeltzeko batzaŕaldietan. Ez da beaz Lotazilan batzaŕaldirik izango.

III.—Ormaetxea jaunaren idazki bat irakuŕi degu ta idazki onen bidez, berak gertu duen iztegiaren antzbide bat ematen digu. Idazki oŕi len aipatu degun batzordeak erantzungo dio.

IV.—Kaietano Iturioz apaiz jaunak Euskaltzaindiari idazki bat biali dio. Ez da aitzakotzat artu.

V.—Azkue jaunak irakurri digu: *Apéndice a la Morfología: epéntesis*. Gero beste bat: *Repartición semántica* deitzen dana.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu degu batzarraldia.

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzaren Gela nagusian 1927'ko Azilla'ren 25'an.

Aurreko agirian aitatu diran euskaltzain jaunak batzarraldian daude. Azkue maipuru. Otoitz egin da.

I.—Azkue jaunak txosten bat irakurri digu, *r* nola ibili bear dan adierazirik: bai *konsonante* aurean bai *vocal* tartean. Altubek ere bere aburua azaldu digu, ta *konsonante* aurreko *r* marratua alperikakoa deritza. Luzaroan autuan egon ondoren auxe erabaki da:

«*R* marratua, *vocal* artean bakarik azalduko da. Marratua ere etoriko da itz aben azken-izkian: *Ur-* (ur-avellana) ta *Zur* (recto, económico, cicatero)».

II.—Badira euskal-idazleak, *guion* edo arbatxoa erabiltzen dutenak *declinacion* edo itzeko goraberetan: arbatxo ori garbi azaltzen zaie: edo *Bilbo*'ko edo *Agurea*'ren idazten dutenean. Euskaltzaindiak deritza, ez dala arbatxo ori *declinacion*-an jarri bear: ez dute beste izkuntzak erabiltzen, geon *declinaciona* baño illunagoa erabili-aren; eta etzuten ere orelako mutur erabili lengo gure idazle zarrak. Gañera beste toki askotan erabili bear litzake senaz ibiltzekotan. Beste batzuek, *i* azkenki danean *y* egin oi dute,

vocal-i erazten zayonean. Ontan ere erabaki bat on litzake. Uŕengo batzaŕetarako utzi da.

III.—Landeŕetxe jaunak *Zuur-itz* batzuek irakuŕi dizkigu. *Euskera*-n azalduko dira.

IV.—Auŕeko batzaŕaldian, batzorde bat sortu da lztegi-lanak gertutzeko: Batzorde ortan, Altube ordez, Olabide izango da: ta Gabonetako opor-egunetan sei edo zazpi txandaz bildu litezke.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzaŕaldia.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean 1928'ko Ilbeltzaren 26'an.

Aipatzen diran euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landeŕetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Ormaetxea. Otoitzez asi da batzaŕaldia.

I.—Poz aundiz ikusten du Euskaltzaindiak, Iruñako Udalak, lendikako erabaki bat jaŕaiturik, aurten ere euskal-idazle batzaldia eragiten duela. Batzaldi ontan gai bikañak azaltzen dira, bai idazle gazteentzat bai zaŕentzat, guziak ordea euskeraz idatzi beaŕak Zorionak damazkio Euskaltzaindiak Iruñako Udalari ta beste Udal ta Aldundiak oŕentxen ereduz balebiltz, ainbat obe.

II.—Azkue jaunak berak egindako lan bat irakuŕi digu, ta erderaz dakar idazkain auxe: «Neologismos formados a imitación de otras lenguas». Iztegiari dagozkion gai batzuek ongi ta ongi erakaŕiz, bere lanaren oin, alemaneraz idatzitako liburu bat izan zaio: Alemanian noski eztabaitagogoŕa sortu da, itz-beŕiak dirala bide. Adierazten digu gañera, zer egin degun lan ontan, alemanak ere beren alderdian zer dakarten,

geyenaz bata beste onura gutxiz: oŕegatik dio, arlo gaitz onek beartzen gaituenez, arduraz eta begi zuzenez ibili bear degula. Bañan euskal-idazleak oju ta oju daude, itz-beŕi oien eske, eŕez ta aixa idatzi dezaten, erderara ezertan jo gabe.

Euskal-idazleak Euskaltzaindiari egin dioten eskaria, Eusko-Ikaskuntzaren bitartez ta joan dan udarako ikastaro motxaren ondoren auxe izan da: Euskaltzaindiak, berari dagokion nagusitasunez, soŕtu edo bila ditzala itz-beŕi txortatxo oiek. Ortan jardun du euskaltzaindi-batzorde batek, amar egunen bitartean, ta Batzorde onen lanak oraintxe dakuskite beste euskaltzañak. Batzorde onen lanak oso-osoak izan diralako, Azkue jaunak beste euskaltzaiñengandik auxe iritxi nai luke: Auŕerantzean, bi ila betetik bein Batzorde au bildu dedila, asitako lanak jaŕaitzeko. Baietz dasaiote euskaltzain geienak, Urkijo ta Lakonbe beste alde izanik. Abek diote: Ez duela Euskaltzaindiak itz-beŕi oien sortzale izan bear; baizik idazle berak ta eŕiak sortu ta pixtuarazi bear dituztela, idazki-lanak auŕera dijoazenez ta eŕiak eman litzazkenez (1)

Ta beste gai batzuek bigaramonerako lagarik otoitzez amaitu da batzaŕaldi auxe.

Bilbo'n, Bizkaiko Aldundi-Jauregian 1928'ko Ilbeltzaren 27'an.

Auŕeko agerian aipatzen diran euskaltzain eta urgazlea batzaŕaldira datoz ta asipeneko otoitza egin du maipuru jaunak.

---

(1) Gauza saila deritzatela, itz-beŕien arazo auxe ilabete gutxi baŕu erabakitzea, au da, esku-iztegia egin liteken asti labuŕean. Beren iritxiz lenbiziko, esku-iztegi onek azaldu bear luke ta gero beste ekitaldi batean, astiro ta sakonki, itz-beŕi onen arazoa arlora erakaŕi.

I.—Aita Intzak Napoŕan bildutako itz-beŕi batzuek dakarzki, Iztegi beŕiari ezaŕi bear zaizkionak. Aita onek berak ekaŕi dizkigu Prantzizko Iribaŕen jaunak, Anizko apaizak, bildu dituen beste itz-beŕi batzuek. Len ere jaun onek berak beste itz-beŕi-txorta biali zigun.

II.—Eguskitza jaunak ere badakarzki Bizkaian eta liburuetan bildu dituenak.

III.—Lakonbe jaunak irakuŕi digu Pierres Laffitte apaiz gaztearen lan bat. Euskal-aditza gai dakar.

Euskaltzaindiak apaiz jaun au urgazle izendatu du, orain gutxi il dan Darricarrere jaunaren ordez. Onen il-samina batzaŕaldian azaldu da.

IV.—Diruzaiak urteko diru-gora-berak adierazi dizkigu ta aurtengoak ere, gutxi gora-bera, berdiñak izango dirala esan digu.

V.—Azkue jaunak Iruñako Apezpiku jaunaren eskutitza irakuŕi digu. Euskeraz idatzia da ta Gazteizera datoŕelako zorionak agertuz idatzi zitzaionen erantzupena da.

Ta besterik izan ez da otoitzez amaitu da batzaŕaldia.

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzako gela nagusian, 1929'ko Epaila'ren 29'an.

Batzaŕaldi ontan euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeŕetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Lakonbe, Etxegarai ta Intzagarai ta urgazletatik Aita Soloeta-Dima. Otoitzez asi da.

I.—Azkue jaunak *j* edo *i*-ren autua euskaltzain artera dakar. Diyo, *j*-tak, euskal-abotan, iru aboskera

dituela: bai *j*-gaztelaŕena, bai *i* laziotaŕena, bai *y* grekotaŕena. Berari deritza, *j*-ta idatzi litekela; bañan aŕen da aŕen, euskaldun guziai otoitz egin bear zayela, *i*-ren otsaz beti esateko.

Beste aburu kat dakar Altube-k, esanik, itz-auŕez *j* idatzi bear dala ta euskaldun bakoitzak bere eŕiko aboskeraz esan.

Eguskitza jaunak diyo, Altube-k eta Azkue-k autuan jaŕaitu dezatela, arlo auxe ongi aztertu arte: edo autua oŕela zatitu: 1º itz-auŕetan *j* idatzi bear al da? 2º Nolako abozkeraz oŕelako edo alako eŕitaldean esan diran aitortu bear al da? 3º *J*-idatzi-aŕen, euskaldunai otoitz egin bear al zaye, *i*-ren abozkeraz esateko?

Luze dijoalako, bigarko utzi da erabakiya.

II.—Eguskitza jaunak aditz-auŕetik dabiĺen *era* auŕezkiya dala diyo ta ez artezki *ra*, batzuek esaten dutenez. Urkijo jaunak erantzun diyo ta ez da erabakirik artu.

III.—Lakonbe jaunak, urtearo, asteko egun ta iĺe-n izen banaroak ekaŕi dizkigu.

IV.—Altube-k esan digu, bera ezin izan litekela *Euskera*-ko Zuzendari, Bilbo'n bizi ezin dalako.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoitzez amaitu da batzaŕaldiya.

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzako gela nagusian, 1928'ko Epaiĺa'ren 30'an.

Auŕeko batzaŕaldian aipatzen diran euskaltzañak datoz.

I.—Azkue jaunak ekaŕi digu lan bat: Irun-Ondaŕabi ta Oyartzun-go aditza.

II.—Atzoko *j*-taren autua beŕitu da; erabaki bat artzeko asmotan. Kanpion ta Olabide jaunak diyote izkiyen abozkeran, nola esan ala idatzi bear litzakela, *j*-ta auxe non nai egon-aŕen. Beaz, *j* esan ezkero, *j* idatzi : *i* esan-da, *i* idatzi ta berdin *y* azaldu ezkero.

Altube-k bere aburua eutsi dakar : Azkue-k ere bai ta autarkitara jo bear dala-ta, Altube jaunaren aburua autagaŕi jaŕi da : Itz auŕe guzitan *j*-ta ipiñiko da, naiz eŕi batzuetan beste abozkeraz esan :

Autarkiyak onela datoz : 6'ik bayetz : 2'ik ezetz ta bi utsetan.

III.—Esku-iztegiya egiten ari dira batzordeko jaunak, Ormaetxea Nikolas jauna lagun dutela. Itzbeŕi asko (neologismo) sortu dituzte, bañan abek ¿lengo itz-artean, beren leŕoan, joan bear al dute, edo iztegiyaren ondoren, toki berezi batean? Auxe luzaroan autuan erabili da, bañan azkenez, autagaŕi izan dedin, Urkijo jaunak auxe azaldu digu :

¿Iztegi beŕi ori *neologismoak* baŕenen dituela azalduko al da, edo iztegi-lekora, toki bereziyan?

Neologismoak iztegiyaren atzetik, toki bereziyan dituela 6-k esan dute : baŕenen dituela 4-k.

V.—Ormaetxea jaunak iztegi-jardunean, oraiñ arteraño egin duen lana euskaltzain jaunai azalduko diye, uŕengo batzaŕaldian.

VI.—Uŕengo batzaŕetarako Lakonbe jaunak, *Euskal-zenbakitza*rako datozen lanen azterpen labur bat ekaŕiko digu.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaŕaldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1928'ko Oŕi-ĺa'ren 14'an.

Batzar ontara euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landeŕetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe eta Etxegarai. Urgazletatik Ormaetxea jauna.

I.—Yabon eta iker-sailari dagozkien arlo batzuek begira ta aztertu ondoren, Euskaltzaindiak, arloan luze ari ta gero erabaki auxe artu du: J-taz idatziko dira itzauŕe abek: Jauna, jan, jaŕaitu ta beste idekoak. J-ta onen abozkera, irutara, euskalkietan, biurtu liteke: edo españetaŕenera edo prantzeztaŕenera edo laziotaŕenera.

Euskaltzaindiak euskaldunai otoi egiten die itzauŕeko j-ta ori laziotaŕenez erabiltzeko are geiago, abozkera ori oso ezagun dan eŕietan edo aŕigaŕi ez deritzaienetan.

II.—La Haya deitzen dan Holanda'ko eŕian oraintxe gutxi dala, izkuntz-batzar nagusi bat izan da ta Urkijo jauna antxe azaldu zan Eusko-Ikaskuntza ta Euskaltzaindiaren izenez. Urkijo jaunak esan digu angotxe batzaŕaldi ta gañerakoak oso gain-gaiñekoak izan dirala ta abetan noski gure euskera aitatu dala. Ardura aundia erabili dute ango batzarkideak, batzaŕaldiko gai guzitan bañan batez ere edo bestien gain, abetxek azaldu dira arduratsuen: *Fonetica*-ren batasuna eta *Atlas Lingüístico*-en egipidea.

Leo Spintzer jaunak adierazi zuen, etzala ertsi ta uŕi ibili bear Atlas-ko lan abetan, prantzeztar batzuek deritzatenez, baizik lasai ta banarago izkelki bakoitzari dagokionez. Batzar-txikitan itzaldiak egin zituzten gure urgazle dan Saroihandi jaunak eta gure euskaltzainkide zaigun Lakonbe jaunak: aren gaia eus-

kal-aditza izan zan; onena beŕiz, aste, il ta urte aroaren izenak.

III.—Azkue jaunak irakuŕi digu alako idazkitxo bat, esanik, Euskaltzaindia esker-zoŕetan dagola, geon artetik oraintxe joan zaizkigun bi gizon argitsuen ganontz. Bata Aureliano Galartza da. Gizon oni zor zaizkio Bizkai-Aldundiak ipiñi zuen euskeraren ikastaroaren lenbiziko oñak. Oŕegatik Azkue jaunak beroni eskañi dio berak idatzirik daukan irakurgai *Latsibi*. Au ez da oraindik argitaratu eleztizalerik azaltzen etzaiolako: egileak noski gipuzkeraz idatziko balu, izango luke nork argitara bota. Beste gizon omengaŕia Juan Karlos Gortazar da. Onek, aŕeta aundiz, Azkue jaunari lagun egin zion, bai Peru-Abarkaren itzulpenean, bai *Eguzkia nora* deitzen dan antzerkian, bai *Iztegi Aundiaren* lenbiziko lanetan.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik, amaitu da, otoitz egiñik, batzaŕaldia.

Bilbo'n, Bizkai - Aldundian, 1928'ko Oŕiĺa'ren 15'an.

Batzaŕaldira auŕekoak eta Gabriel Manterola urgazlea datoz.

I.—Joŕaiĺa-ren lenbiziko egunez amaitu zan *Euskal-Zenbakintza* gai duten lanen epea. Lan abek aztertzeko izendatu zan batzordeak, bere erabakia dakar. Bi lan etoŕi dira: bat euskeraz idatzia; bestea alemaneraz. Ez batak ez besteak ez dute epaileen gogorik bete, utsune batzuk badituztelako ta naiko ezagun zitzaizkien oarpide batzuek aitatu ez dituztelako. Ala ere, saritu nairik egile-lanak, badutelako beste aldez beren osamena, auxe erabaki da: 350 peseta emango zaiz-

kio Giese jaunari, bere alemanerazko lanagatik: 150 peseta Jose Zabala-Arana apaiz jaunari bere euskerazkoagatik.

Urteroko *Schuchardt sari* auxe datoŕen urtean irakurgai (novela) lan bati emango zaio. Irakurgai au edozein euskalkitan idatzi liteke ta datoŕen Joŕaila-ren Irako biali bear dira onetariko lan guziak Euskaltzaindiaren etxera, Ribera 5, Bilbao, beste batzaldietan izan oi diran araupidez.

II.—Altube jaunak irakuŕi digu Aita Eŕomaldo Galdoz-en *Yosukistoren nekaustea*-ri dagokion txosten bat. Txosten onek aita Galdoz-en lana onesten du. Gipuzkoa-ko Aldundiak, auxe dala-ta, geon iritxia eskatu digu. Euskaltzaindiak, erantzupenez, Altuberen txosten oneslea bialiko dio.

III.—Azkue jaunak bi lan irakuŕi dizkigu: bata *Neoflexismo*, au da oraingo idazleak an eta emen darabizkiten adizkera beŕiak; ta beste bat eŕiak oitu oi dituen neurtizkerak.

IV.—Altube, Eguskitza, Intza ta A. Inazio Ajangiztaŕak iztegi beŕirako itz beŕi batzuek ekaŕi dizkigute. Aita Intzak, gañera, euskal-esaera zeŕenda beŕia.

V.—Luze ta astun itz egin da iztegi beŕi ta *neologismoz* ta erabaki batzuek artu ere bai, batzordearen geroko lanetarako.

VII.—Lakonbe jaunaren, bidez, Bretona-tar Iztegi bat datorkigu, angoxe Izkuntzaindiaren eskeñiz. Eskeŕak agertzen zaizkio.

VII.—Euskaltzaindiak, atsekabezko oroimenaz aipatu ditu orain gutxi il zaizkigun gure urgazle Lardizabal Aita ta Aureliano Galartza jauna (G. B.).

Ta beste gairik izan ez da otoitez amaitu da batzaŕaldia.

Donostia'n Eusko-Ikaskuntza'ren gela nagusian, 1928'an Uŕiĺa'ren 25'an.

Emen aipatzen diran euskaltzain jaun abek datoz: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeŕetxe, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, ta Etxegarai. Urgazlerik batez. Otoitzez asi da batzaŕaldia.

I.—Jabon-saĺari dagozkionetan: Aita Intza-k Olaguen egitera dijoazen euskal-egunaren beŕi eman digu: Iruña-ko Seminarioan, euskerazko ikastaroa nola dabiĺen, adierazi digu: Pilosofiako lenbiziko urtekoak, egunero izaten dute: latiñeko laugaŕengoak bi egunetik bein: bertako irakasle jaun Intxauŕondo-k oraintsu argitaratu du: «Modo práctico de aprender el euskera».

Azkue-k esan digu: Bilbo'ko *Instituto*'n bi gela eskeintzen dizkigutela, gure lantegiak antxe jartzeko. *Sala de estudios* deitzen dan gela-nagusian, gure etxeko alki-mai ta orma-irudiak jaŕi genezazkike, ta bertan batzaŕaldiak egin. Azkuek gure iritxia eskatzen digu. Euskaltzaindiak dasayo eskeñi ori jaso bear dala, bañan gure batzaŕaldiak, iñoren eragozpenik gabe egitekotan.

Azkuek berak esan digu, joan dan urtearoan, gure batzaŕaldiak bi iĺebetetik bein izan dirala; bañan auŕerantzean iĺero izan bear lutekela. Baietz erantzun du Euskaltzaindiak.

II.—Jose Migel Barandiaran jauna, beronek egin dituen euskal-folklore lanagatik urgazle izendatu degu.

III.—Azkuek erabili ditu autuan: *Diccionario-Gramatika* ta *Diccionario de la rima;* abetzaz ugari ta artez itz egiñik.

IV.—Azkue jaunak bere lana irakuŕi digu: *Estudio*

de la Sincopación. Aztertu ditu : bizkaitarren *conjunción bere : lez, legez*-en ordez dabilena ta *ba bada*-ren ordezkoa. Urkijok esan diyo : ongi daude lan abek, bañan Euskaltzaindiak oraintxe jardun bear lukela Iztegiari dagokiyon lan arduratsuan. Auxe erabaki da ta bertatik asi gera *neologismoen* sala aztertzen.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, otoitz egin ta batzarraldia amaitu da.

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian 1928'ko Urrilaren 26'an.

Aurreko batzarraldian aipatzen diran euskaltzain jaun berak datoz. Otoitz egin da.

I.—Lakonbe jaunak esan digu : *Catecismo* zar bat idoro duela ta berau ongi aztertu duela. Euskal-katekisma onen lenbiziko agerraldiko ale bakarra *Pau*-en dago. Bigarengo aldiz Akiz-en azaldu zan ta onen bakarra ere Burdigalen dago. Gogoz entzun dizkiogu berri abek.

II.—Aita Intzak Naparoan arkitu dituen esaera zar batzuek irakurri dizkigu.

III.—Altube jaunak, Gaubeka irarlearen eskutitz bat irakurri digu : Gaubekak nai luke 1° Liburutegi euskaldun bat iratsi, lengo edo oraingo liburuak irarturik, ta 2° onen iritxipena Euskaltzaindiari eskatu. Lan ontarako Euskaltzaindiak eman bear lioke sorospen bat. Erantzun bear zaio : Eusko-Ikaskuntzak, berak aipatu duen asmoa, aspalditxo darabilkiela ta ari zuzendu bear diola bere asmo auxe.

IV.—Aita Iraizoz-ek biali dizkigu Iztegirako itz berri batzuek. Jaso ditugu.

V.—Etxegarai jaunak esan digu zertan dan ta nora dijoan oraintsu sortu dan: *Federación de acción popular vasca*. Etxegarai beronek Euskaltzaindiaren ordetza bazkun beri ortan egin lezake.

VI.—Euskaltzaindiak jardun du Iztegi beriko neologismo-taldea aztertzen ta atzoko ta gaurko lanaz *Abogado* arte iritxi da.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1928'ko Azila'ren 29'an.

Batzaraldira euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landeretxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza ta Lakonbe: urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitz egin da.

I.—Aita Intzak, Olague'n, Naparoan, oraintsu egindako euskal-jaien beri eman digu. Jakiña da, euskal-jai abek Naparoako *Euskeraren Adiskideak* egin dituztela ta beren euskal-lanetan aurera ta aurera dijoazela, begien aure dago: aixtian, euskal-bilkun onek, Azkue jaunaren eta Aita Donostiaren abesti-liburuetatik ateratako abesti-xorta argitaratu du.

II.—Azkue jaunak bere lan bat irakuri digu: *Capitán Duvoisin*'en esku-idazki bateko arloa dakar, *gramatikari* dagokiona. Azkue berak aitortu digu, Capitan onen lanak baduela zer gora ta zer ikasi, garai antziñan idatzia dan ezkero.

III.—Euskaltzaindiak, aureko batzaralditan erabaki zanez, Iztegi beriaren lanari gogor ekin dio; bañan lan ontarako *afijacion*'en ardura-arduzazko ikasbide berezi bat egin bear da, erex ta lirainki itz-beri edo

neologismoak sortu ditezen. Nai luke Euskaltzaindiak len bai len Iztegia argitaratu bañan itz-berien sail onek garaia bear.

IV.—Altube jaunak, an da emen, onlako ta alako liburuetan bildutako itz eta esakun, Azkue jaunaren Iztegi aundian ez daudenak, irakurri dizkigu. Beste ainbat Eguskitza jaunak, Aita Lhandek oraintsu argitaratzen duen iztegitik bilduak.

V.—Joan dan ilean esan bear zan batzarraldiaureko Espiritu Santuaren Meza etzan eman, aztu giñalako. Biar Euskaltzaindia Santiago Elizara, goizeko bederatzitan, Mezara joango da. Meza Aita Intzak emango du.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu da batzarraldia.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1928'ko Azila'ren 30'an.

Aureko batzarraldian aitatzen diran jaun berak datoz. Otoitz egin da.

I.—Aita Intza-ren bitartez, Euskaltzaindiak artu ditu Aita Arayoz eta aita Ikastegietak, Iztegi berirako egin dituzten lanak. Ongi egiñak daude. Atsegin aundiz artu ditu ere Iñazio Mari Etxaidek Iztegirako bialtzen dizkion txartelak. Abek ere ederki egin eta tajutuak daude.

Euskaltzaindiak biotz-biotzeko eskerak jaun abei damazkie.

II.—Aita Intzak dio: Aita Pastor Arayoz-ek berebiziko lan sakona dakarkigula Iztegiaren arazo ontan ta zerbaitez saritu bear litzakela. Baietz dio Euskaltzaindiak: ta saria izango da idaz-tresna edo maquiña,

ez beŕi-beŕi erosia, baizik len dabilen beŕi xamaŕen bat. Ontarako 200-dik 250 pesetaraño eralki litezke. Erosketa al bada, *Monte de Piedad Munizipal*-en egin bedi.

III.—Barandiaran Jose Migel jaunak, beretzat aukeratu zan urgazletza oniritxirik, eskeŕak eman dizkigu.

IV.—Lakonbe jaunaren bidez, artu du Euskaltzaindiak *Sur l'Histoire du Breton* deitzen dan liburua. Emile Ernault bere egiĪe jaunak Euskaltzaindiari eskeitzen dio. Eskeŕik asko.

V.—Itzbeŕi-azterketan batzaŕaldiko garairik geiena igaro dute euskaltzain jaunak, ta *Actividad* arte iritxi dira.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaŕaldia.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren Gela nagusian, 1928'ko LotaziĪa'ren 19'an.

Batzaŕaldi ontara emen aipatzen diran euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landeŕetxe, Olabide, Lhande, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitz egin da.

I.—Aita Intzak esan digu, Iruña-ko Apezpiku jaunak, oraintsu eman duela bere artzai-eskutitz bat, euskeraz eta erderaz idatzia. Pozik entzun du auxe Euskaltzaindiak. Gazteizko apezpiku jaunari eskari bat egitea erabaki da: eskari au ordea, arpegi-arpegiz egin bear litzaioke: erderazko itzaldiak ziaro ultzeko, euskera besterik ez darabilkiten eŕietan.

II.—Aita Lhandek dio, eŕi euskaldun askotan, bederatziuŕenak erderaz egiten dirala. Lenago ere ibili

zuen Euskaltzaindiak arlo auxe, ta orduan bezela erabaki da. Apaiz jaunai galdetzea zer bederatziurén bear duten Euskaltzaindiak igoŕi dezaien. Erabaki au ere Gotzai jaunari itzez-itz egingo zaio.

III.—Gotzai jaunari itz egin bear zaio *Santa Infancia* deitzen dan aldirokoa ume euskaldunentzak euskeraz argitaratu bear litzakela.

IV.—Iztegiaren lanetan jaŕaitu da, erderazko *ademan* arte. Ta beste gai batzuek bigaramonerako lagarik, otoitzez amaitu da batzaŕaldia.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren Gela nagusian, 1928'ko Lotazīla'ren 20'an.

Auŕeko agirian aipatzen diran euskaltzain eta urgazle jaunak batzaŕaldian bildurik daude, eta, otoitzez asi da.

I.—Azkue jaunak lantxo bat irakuŕi digu: *Aparición o presencia de la z en la conjugación familiar. Zetoŕek* esate baterako zer oteda z auxe?

II.—Laŕusket apaiz jauna, berak egin duen oraingoxe lan eder bategatik Euskaltzaindiak bere urgazle izendatu du.

III.—Iztegiko lanak auŕeratu naiaz, Euskaltzaindiak lan eta lan dagi: bañan alpeŕikako ekite asko ezenatzeko, auxe erabaki da: emendik auŕerako lanik nagusienak Ormaetxea jaunak Euskaltzaindiari ekaŕi dezazkiola, bañan Azkue jaunak lan oietan, esku ta laguntza ipiñi ondoren. Erderazko *Aduana*-arte lan egin da.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaŕaldia.

ERIZKIZUNDI-IRUKOITZARI EŕIETAN ERANTZUN DIOTENAK

Bizkaiko euskalkia

Erizlearen izena	Sortefia	Urteak	Efian eginak (1)	Lankideen izena
Gregorio Zabala	Aba(d)iño	61	Oro	N. Ormaetxea
Ramón Landaluze	Akosta	62	»	» »
Ramona Bermionsolo	Amoroto	70	»	Dionisio Gabiola
Saturnino Bafenetxea	Apatamonasterio	84	»	N. Ormaetxea
Rufino Mondragón	Aramayo	35	21	Madariaga A. A. O. F. M.
Santiago Bernaola	A(ra)ntsasu(afati)	58	Oro	N. O.
Marcelina Laspiaur	Arbazegi	75	70	N. O.
José Zuzaeta	»	52	Oro	Antonio Astorkia
José Miguel Amesti	Arbaz-Gefikaitz	66	»	Buenaventura Lafucea
Luis Afue	Aretxabaleta, (Efia)	45	Oro	José Afue
Francisco Ufutia	Aretxab. (Goronaeta)	56	»	Zeferino Sarasola
Félix Efasti	Aretxab. (Arenaza)	78	»	» »
Pedro Zubizafeta	Aretxab. (Isurieta)	45	»	» »
Rosalía Idigoras	Aretxab. (Efia)	78	»	» »
Ricardo Lafea	Afankudiaga(g)a.	50	»	N. O.
José Eguskiza	Afasola	75	»	N. O.
Maria Antonia Intxausti	Afatzu(Arrazua)	72	»	N. O.
Felipa Bilbao	Afita(Arrieta)	89	»	N. O.
Domingo Iturbe	Artea(g)a.	70	»	N. O.
Celestina Gojentzia	Aspe(Martsa(n)a.	62	48	N. O.
José M.ª Goikoetxea	Aulestia		63	E. Zenikazelaya
Francisco Gandarias	Axangiz	35	15	Madariaga A. A.
Manuela Elortegui	Baki(dx)o.	88	Oro °/o	N. O.
Gregoria de Baraona	Bafika	65	»	N. O.
Aniceta de Etxebefia	Bedia	82	»	N. O.
